

Umeen Eguna ospatuko dute gaur Otxandion

Uztailaren 22ra bitartean, jaiaz gozatzeko askotariko ekitaldiak egongo dira Otxandion / 11

Aurpegi berriekin ekin diote denboraldiaurreari Amorebieta futbol taldean / 29



Ordenantza berria onartuta, Durangon 520 babeseko etxebizitza eraikiko dituzte / 4

3,8 milioi euroko inbertsioa egingo dute Goitondoko saneamendua eraikitzeko / 6



MAÑARIKO ANDRA MARI JAIK 2024 / 5



MALLABIKO ANDRA MARI JAIK 2024 / 5



EL JUEVES ALDIZKARITIK ZORNOTZAKO JAIETARA

Igor Fernandez zornotzarra El Jueves aldizkariko zuzendaria da eta baita aurtengo Santanatzu eta Karmenetako kartelaren egilea ere / 2-3

 **HEGAN RENT**

Goitondo behekoa industrialdea, 1-1 partzela
48269 Mallabia (Bizkaia)
Tel.: 943 171 362



administracion@alkideba.net · www.alkideba.net

Furgoneta alokairu zerbitzu berria!





Igor Fernandez, Zornotzako jaietarako egin duen kartelaren ondoan.

"Eskuindarrek eta ultraeskuindarrek daramate okerren eurei buruz umorea egitea"

IGOR FERNANDEZ EL JUEVES ALDIZKARIKO ZUZENDARIA

Zornotzako jaietan alde guztietan ikusten den kartelaren egileak ibilbide luzea darama komikigintzan. El Jueves aldizkari satiriko ezaguneko zuzendaria da

Jone Guenetxea ZORNOTZA

El Jueves aldizkaria erreferente da umore satirikoaren lantzen. Ganberroa batzuetan, garrantza besteetan, ez da irakurlea epel uzten duen horietarikoa. Igor Fernandez Fernandez (Zornotza, 1983) proiektu horren zuzendaria da. Zornotzako Udalak herriko jaietako kartela diseinatzea enkargatu zion, eta bere ikutu propioa eman dio.

Zornotzako jaietako kartela diseinatzerakoan, buelta asko eman dizkiozu buruari?

Ez. Argi nuen komiki bat izango zela, eta, jaietako pertsonaia erabiltzeko eskaera egin zidatenez, pertsonaia hori hainbat egoeratan ipintzea izan dut helburu.

Gustura geratu zara helburuagaz? Bai, hasieran zalantzak izaten dituzu zeozer sortzen duzunean. Baina egun batzuk joan eta gero eta herriko hainbat lekutan ipinita ikusi eta gero, pozik geratu naiz.

Bartzelonan eta Zornotzan egiten duzu bizimodua. Egongo zara jaietan aurten?

Pena bat da, baina aurten ezinongo naiz egon.

Zer da jaietan gehien gustatzen zaizuna?

Kontzertuak, betidanik. Jaietan lehenengo begiratzen dudana kontzertuen zerrenda izaten da. Izaro ikusteko gogoia nuen aurten, baina ez da posible izango. **El Jueves umore satirikoaren erreferente da. Zelan heldu da zornotzar bat proiektu horren gidaritzara?**

Apurka-apurka izan da. 15 urte daramatzat aldizkarian nire lanak kaleratzen. 2009an lan batzuk egiten hasi nintzen bertan. Urte bi geroago, hainbat enkargu nuen egiteko. Ondoren, atal finko bat izan nuen, eta ordura arte izan nuen lana utzi nuen. Erredakzio kontseiluan sartu nintzen ondoren, eta zuzendari izendatu ninduten gero.

Zein lantalde duzue?

Bakoitzak etxetik lan egiten du eta erredakzio talde bat dugu. Maketatzailak eta administrazio arduradunak eta baditugu, eta ni neu zuzendari lanetan. Lehen, mahai mordoko estudioa geneukan, baina orain ez daukagu horrelakorik. Guztira, 30 bat lagun izango gara.

Zuen lana oso lotuta dago aktualitateagaz. Ez dut esango kazetariak zaretenik, baina kazetari lana ere egiten duzuela esan daiteke?

Batzuek uste dute kazetariak

garela, baina ez gara kazetariak. Hala ere, analisi eta sintesi lan handia egiten dugu. Aktualitatea komikiaren lengoaiara transkribatzen dugu eta horri umorea gehitzen diogu.

Pertsonaia ugari izaten da zuen aldizkariako protagonista. Nortzuk dira umore gutxien duten pertsonaia?

Eskuindarrek eta ultraeskuindarrek daramate okerren umorea. Igartzen da ez dutela autokritikarik egiten. Adibide bat ipiniko dizut. Orain pare bat urte, kromo batzuk egin genituen.

"AKTUALITATEA KOMIKIAREN LENGOAIARA TRANSKRIBATZEN DUGU"

"EZ DAUKAT PERTSONAIA FAVORITORIK, BAINA ISABEL DÍAZ AYUSOK EMATEN DU MATERIALIK GEHIEN"

La Pandilla Basuraren parodia bat egin genuen kromo horien bitartez, eta 'La pandilla Voxura' deitu genion. Publikatu zenean, esango nuke enteratu ere ez zirela egin. Hile bi geroago, sareetan berriro agertu eta Voxeko kontu ofizialean seinالاتu egin gintuzten. Non geunden eta editorialeko zuzendaria nor den idatzi zuten. Mehatxu antzeko bat izan zen.

Zelan daramatzazue horrelako gertaerak?

Ez diogu garrantzi handirik ematen, ofizioaren parte da eta. Oso ohituta gaude. Kasu hau aipatu dut, kontu ofizial batetik egindakoa delako, baina irainak eta horrelakoak sare sozialetan eguneroko ogia dira; batez ere, Twitterren.

Baduzu pertsonaia gogokorik, erreal edo fikzioan sorturikoa?

Ez dut favoritorik, baina Isabel Díaz Ayusok ematen digu materialik gehien. Oso ondo etorri zaigu. Aznar joan zenean pena hartu genuen, aukera bikaina ematen zuelako umorerako. Gero Rajoy etorri zen. Hura ere bi-

kaina umorerako, eta Rajoy joan zenean ere pentsatu genuen ez zela horrelako besterik agertuko. Eta, bat-batean, non datorren Ayuso. Trumpen estiloko jendeak ere joko handia ematen du.

Izan al duzue arazorik legalki?

Azken epaiketa polizia ipinitako salaketa bategaitik izan genuen. Bartzelonan urriaren lean hautetsontziak atera zituzteneko garaikoa da. Orduan, Piolinen itsasontzi famatua eraman zuten hara, eta 2.000 polizia inguru zeuden ontzian. Maila partikularrean ere, pertsona batzuek auzitara eraman gaituzte, baina atzera bota dituzte denak.

Lan bat hasten duzueanean, zein ordenatan aritzen zara? ideiak pentsatu, marrazten hasi...

Lehenengo, gidoia lantzen dut. Batzuk orri zuri bat atera eta idazten hasten dira. Nik ikusi egin behar dut, eta, horregaitik, bozetoak egiten ditut lehenengo. Zirriborro batzuk dira eta inork ere ez ditu ulertzen. Gero hori ordenagailuan diseinatzen eramanen dut.

Izan duzue aldaketarik digitalizazioa dela eta?

Hainbat etapa bizi izan dut. Orain 15 urte El Jueves aldizkaria heldu nintzenean, oso webgune indartsua zuen eta oso errentagarria zen. Baina orain jendea ez da webguneetara sartzen, sare sozialetan ibiltzen da. Beraz,

"EZ GARA KAZETARIAK, BAINA ANALISI ETA SINTESI LAN HANDIA EGITEN DUGU"

orain, harpidetza egitea eskatzen dugu, aplikazio baten bitartez aldizkaria irakurtzeko. Aplikazioak oso ondo funtzionatzen du. **Aldizkari zuzendaria izateaz gainera, hainbat publikazio kaleratu dugu.**

Lehenengoa *Zombie Life* izan zen, liburuki bitan. Galdakaoko Ivanper autoreagaz *Robocracia* argitaratu nuen gero, roboten inguruan, hau ere liburuki bitan. Hirugarren bat kaleratzea ere badugu buruan. Liburu txikien bilduma bat ere kaleratu dut, *Inoiz kontatu ez dizutena...* hain-



bat gairen inguruan: bidaiatu, pisua bilatu...

Beste aldizkari batzuetan ere kolaboratzen duzu. El Juevesen hasi aurretik TMEOn kolaboratzen zenuen. Seguruena, aurretik TMEOn kolaboratzen nuelako sartuko nintzen El Jueves aldizkarian. Zertan nabilen ikusi zuten eta

horrela sortu zitzaizkidan aukera. Eta orain ere jarraizten dut TMEOn.

Komikiak loraldia izan du azken urteetan. la edozein gairen inguruko lanak aurkitu daitezke.

Bai, nobela grafiko legez hartu izan da komikia. Denerik aurkitu daitezke komikietan, ez ba-

karririk umorezko gaiak edo superheroienak. Boom handia gertatu da, eta editorial berriak ere jaio dira. Oso edizio zainduak kaleratzen dira gaur egun. Nik neuk ere askotan pentsatzen dut egunen batean istorio luze bat landuko dudala. Baina ez dut astirik izan horretarako.



Okm:
batzen gaituen
distantzia

abantaila
guztiak
hemen >



**30€
urtean!**

Egin zaitez anbotokide!

**anboto
kide**



Durangoko gobernu taldeko kideak Birjinosteko eraikuntza lanetan. DURANGOKO UDALA

Durangon babeseko 520 etxebizitza eraikiko dituzte

Alokairu sozialerako 330 etxebizitza eraikiko dituzte, eta prezio mugatua duten 190 bizileku. Azken horiek eraikitzea ahalbide-tuko duen lehenengo Etxebizitza Tasatuen Ordenantza onartuko dute hurrengo osoko bilkuran behin-behinean

Aitziber Basauri DURANGO
Datozen urteetan, babes ofizialeko 520 etxebizitza eraikiko dituzte Durangon. Horietariko 330 alokairu sozialeko etxebizitzak izango dira, eta gainerako 190 etxebizitzek prezio mugatua izango dute. Azken horiek eraikitze-ko aukera zabalduko duen Etxebizitza Tasatuen Ordenantza

hurrengo osoko bilkuran onartuko dute behin-behinean.

"Urrats esanguratsua"
Durangok lehenengoz izango du mota horretako ordenantza bat, eta Mireia Elkoroiribe alkatearen berbetan "erantzun zuzena" emango diete durangarren eskariei. Gizarte "bidezkoagoa" eta

"eskuragarriagoa" eraikitze-ko "urrats esanguratsua" dela nabarmendu du. Politika "errealista" eta "egingarria" landu dutela azaldu du alkateak. Eta Jesica Ruiz alkateordeak gaineratu du udalak konpromisoa hartu duela durangar guztiek "etxebizitza eskuragarriak eta kalitatezkoak" izan ditzaten.

"Bakoitzak dituen aukeren arabera", argitu du. Etxebizitza premiari erantzutea ez ezik, "ekitate eta ongizatea" sustatzea dute helburu.

Gobernu taldeak etxebizitza berriak eraikitze-ko eta hutsik daudenak merkaturatzeko konpromisoa duela azaldu dute, "herritarrei etxebizitza egoki bat eskuratzeko aukera eskaintze-ko oinarriak ezarrita". Etxebizitza Sailagaz bilera bat egitea eskatu dute, herriko etxebizitza politika guztia koordinatze aldera.

ALOKAIRU SOZIALEKO ETXEBIZITZAK

- BEPB: 84.
- Faustegoiena: 23.
- Birjinoste: 34.
- Larrasoloeta: 38.
- Iparraldekoa: 30.
- Arripausueta: 50.
- Kabilduoste: 18.
- Mikeldi: 48.
- GUZTIRA: 330.

PREZIO MUGATUA DUTEN ETXEBIZITZAK

- San Fausto: 88.
- Kabilduoste: 18.
- BEPB: 84.
- GUZTIRA: 190.

EH Bildu, eredu berri baten alde

EH Bilduren ustez, Durangok etxebizitza publikoko politiketan "berritzeko" eta "etxebizitzaren eskubidea bermatzeko" aukera galdu du. "Ezin da lurzorua saltzen eta etxebizitza eraikitzen jarraitu, epe laburrean etekin ekonomikoa lortzeko asmo bakarrarekin. Berritzeko unea da, alokairuan eskaintza sustatzeko eta alokairuko etxebizitzaren parke publikoa sortzeko". Udal jabetzako lurzorian eraikiko diren prezio mugatuko etxebizitzak alokairu erregimenean bideratzea eskatu diote gobernu taldeari. Horretarako, ordenantzari zuzenketak aurkeztu dizkio, baina gobernu taldeak ez ditu onartu.

DURANGARREN ESKARIERI "ERANTZUN ZUZENA" EMANGO ZAIE

Larrasoloeta xake taldeak 40. urteurrena ospatuko du aurten

Adiskidetasunaren Torneo eta Eskolarteko Txapelketa egingo dituzte; udalak 12.000 euroguz lagunduko die

A.B. DURANGO
Durangoko Larrasoloeta xake taldeak 40 urte egingo ditu aurten, eta, urteurren borobil hori ospatzeko, hainbat ekitaldi prestatuko dute. Horretarako, elkar-reak 12.000 euroko diru laguntza jasoko du Durangoko Udalaren eskutik.

Lau hamarkadako ibilbidea ospatzeko, xake taldekoak Adiskidetasunaren Torneo eta Eskolarteko Txapelketa prestatzen dabilta. Lehenengo hitzordua datorren irailaren 21erako lotu dute. Euskal Herriko eta Espai-

niar estatuko 40 bat talde elkartuko dira Landako Gunean.

Eskolarteko Txapelketa
Bestalde, azaroaren 3an Eskolarteko Xake Txapelketa egingo dute. Ekitaldiaren bitartez, ikasle-aren artean xakeagazko interesa sustatu gura dute, eta 700 bat gaztetxo batzea aurreikusiko dute. Jardunaldi hori ere Landako Gunean egingo dute. Urteurrena borobiltzeko, Gabonetarako ekitaldi berezi bat prestatzen dabilta iragarri dute Larrasoloeta taldeko kideek. Ekitaldi



Larrasoloeta xake elkarteko eta udaleko ordezkariak. DURANGOKO UDALA

ESKOLARTEKO TXAPELKETA 700 BAT GAZTETXO BATUKO DITU LANDAKO GUNEAN

guztiak aurrera eraman ahal izateko jasoko dute udalaren diru laguntza, "tokiko kirol erakunde-ek laguntzeko eta durangarrentzat onuragarriak izango diren jarduerak sustatzeko konpromisoa" berretsita.

Durangotik Donostiarako garraio zerbitzua galdegai

A.B. DURANGO
Durangoko Udalak galdeketa bat ipini du martxan Durangotik Donostiarako garraio zerbitzua hobetzeko asmoz. Lanagaitik, ikasketengaitik zein aisialdiagaitik Durangotik Donostia-ra joan behar duten pertsonen eskaria ezagutu gura dute, datu horiek garraioko foru-organo eskudunei helarazteko. "Desplazamendu ohiturak, lehentasunak eta askotariko beharrak hobeto ulertzea da helburua, autobus eta tren zerbitzuen kalitatea eta eraginkortasuna hobetzeko", argitu dute. Uztailaren 28ra bitartean bete daiteke prestatuei-ko galdetegia, Durangoko Udalaren webgunean sartuta.

'Durango Turismo', nortasun turistikoa sendotzeko marka

Irudi berriak eskualdeko natura, historia eta kultura nabarmenduko dituen turismo iraunkorra bultzatu gura du

A. Basauri DURANGO

Udalak marka berria merkaturatu du herriaren nortasun turistikoa sendotzeko: Durango Turismo. Mireia Elkoriribe alkatearen berbetan, hiribilduaren erakargarritasun nagusiak nabarmentzea izan da helburua: ondarea, historia eta natura. "Horretarako, Santa Anako arkuaren silueta elementu naturalekin konbinatzen duen irudia sortu da", adierazi du. Bere esanetan, "helmuga kultural eta natural gisa" sustatzeko eta dinamizatzeko "funtsezko tres-

na" ere izan gura du Durangok. Marka berria udalak bultzatu gura duen estrategia turistikoaren isla da: "Jarduera ekonomikoa indartu, eta ostalaritza eta merkataritza bultzatu gura dituen; herriko ondarea, historia eta natura nabarmentzeaz gainera, turismoa herriko egunerokoan txertatu gura duena", esan du alkateak. Horrela, Durangaldeko natura, historia eta kultura nabarmenduko dituen turismo iraunkorra sustatu gura dute. Turismoak "nabarmen" egin du gora Jessica Ruiz alka-



Udaleko eta Turismo Bulegoko ordezkariak. DURANGOKO UDALA

IRUDI BERRIA UDALAK BULTZATU GURA DUEN ESTRATEGIA TURISTIKOAREN ISLA DA

teordeak esan duenez: "2024ko ekainera bitartean, 9.251 bisitari izan ditugu; iaz, denbora tarte berean 8.833 izan ziren". Bestalde, ekaineko bisita gidatuetan 105 lagunek parte hartu dute.

Bizikletak garbitu eta konpontzeko leku berria Durangon

A.B. DURANGO

Bizikletak garbitzeko eta konpontzeko gune berri bat egokitu dute Durangoko San Fausto auzoan, Astolara bidean dagoen bidegorriaren ondoan. Durangoko Udalak 7.200 euro inbertitu ditu 2023ko aurrekontu parte hartzaileen barruan gauzatu diren lan horietan.

Bizikletak ondo mantentzeko leku egokia eskaini gura zaie txirrindulariei, "horrela Durangon mugikortasun jasangarriagoa eta osasungarriagoa lortzen laguntzeko", udal ordezkariak azaldu dutenez. Azpiegitura berriak inguruko zerbitzuak ere osatuko dituela gaineratu dute.

Lehiaketa gastronomikoak eta dantzaldiak Madalenako jaietan

Madalenako Auzo Alai elkarteak antolatuta, askotariko ekintzetan parte hartzeko aukera egongo da asteburuan



Madalenako jaietako artxiboko irudia.

A.B. DURANGO

Durangoko Madalena auzoan jai giroan murgilduko dira asteburuan, eta bertako Auzo Alai elkarteak antolatuta hainbat ekintzetan parte hartzeko aukera izango dute bertaratzen direnek. Gaur 20:00etan jaurtiko duten txupinazoagaz hasiko da jai giroa. Ondoren, tortilla dastatzea egongo da. Gau giroa Gabi DJak alaituko du.

Besteak beste, umeentzako jolasak, Kriskitin dantza taldearen saioa, paella txapelketa, herri kirolak eta karta joko txapelketak antolatu dituzte datozen egunetarako. Mariatxiak ere izango dituzte, eta erromeria Esbirros taldeagaz. Madalena eguna Jaizale elkarteak hasiko du, eta Tabira udal bandaren saioak agurtu. Egitarau osoa agendan dago.

Bakailao txapelketa, Luhartz eta antzerkia Goierriko jaietan

Zaldibarko Goierri auzoan jaietan daude. Musika jaialdia eta askotariko txapelketak izango dituzte asteburuan

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Baserri auzo txikia den arren, Goierriko bizilagunek herri koskorren antzera ospatzen dituzte jaiak. Giro herrikoiaz, jakina, eta hainbat herriren parekoa den egitarau zabalagaz lagunduta. Jaiak eguenean hasi zituzten, eta domekara arte makina bat ekitaldi egingo dute ermitaren eta auzo elkartearen egoitzaren inguruetan. Ekintzarik parte hartzaileenetarikoz batzuk honako hauek izango dira: paella eta bakailao txapelketa, Luhartz taldearen erro-

meria, askotariko bolo txapelketak eta buruhandiak.

Gaurko egitaraua sardina janagaz hasiko dute, 20:00etan, eta 21:00etan bolo jokoa eta musika jaialdia izango dituzte. Nekhtar talde berriztarra, Hatxe talde zaldibartarra eta Jon Uri, K-Rras & Kr8beatz raplariak taularatu dira. Emanaldien amaieran, Lander Luque musika jartzaileak girotuko du gaua. Zapatuan, 11:30ean hasiko dituzte bakailao eta paella txapelketetarako kozinatze lanak. Egitaraua *anboto.org* atarian kontsultatu daiteke.

UDAKO MAILEGUAK
IRAILAREN 16RA ARTE

Nobedadeak eta beste Biblioteketako materialak izan ezik

Iurreta
Eleizateko Udala
HERRI BIBLIOTEKA

LJ75- Lanean jarraitu 75 urte

Cia Barsanti

Uztailak 26, ostirala

20:00etan, Antzerkia
Olatmotzena Parkea edo Landako Gunea

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Apatako igerilekuko taberna zabaldu dute

Mondragon Unibertsitatean ikasten dabilen gazte kuadrilla batek hartu du tabernako ardura, "ilusio eta gogo handiagaz". Mota askotako freskagarriez gainera, ogitartekoak, natxoak, patatak eta gofreak eskainiko dituzte, besteak beste

Joseba Derteano ATXONDO

Atxondoko Udalak Apatako igerilekuko taberna esleitu du eta asteon zabaldu ditu ateak. Hasieran, tabernak igerilekuko ordutegi bera izango du.

Udalak igerilekuaren kudeaketa zuzena berreskuratu du aurten eta hainbat hobekuntza egin ditu tabernan. Esaterako, sukaldeko etxetresna elektrikorik gehienak berriak dira, ontzi-garbigailua kasu. Horrez gainera, sukaldea eraberritu eta elektrizitate sistema berri du.

Tabernako arduradunak azpiegitura berri honetan hasiko dira lanean. Mondragon Unibertsitatean Lidergo Ekin-



Adinari dagokionez, 19tik 22 urtera arteko gazteak dira.

tzailea eta Berrikuntza ikasketak egiten dabilen hainbat gazte dira, 19tik 21 urtera artekoak. Durangoko, Elorrioko, Gasteizko, Aretxabaletako eta Eibarko gazteak dira, besteak beste. Ikasketen harira, urtero bidaia bat egiten dute. Alemanian eta New Yorken izan dira eta datorren urtean Hego Korea eta Indiara joan gura dute. Enpresak bisitatu eta proiektuak garatuko dituzte. Apatako igerilekuan baturiko dirua bidaiak finantzatzeko erabiliko dute.

Ilusio eta gogo handia

Jana Roman Rosete 21 urteko gasteiztarra da gazte horietariko bat, eta esan du ilusio eta gogo handia dutela taberna zabalteko. Azpiegituragaz ez dute aitzakiarik. "Oso ondo dago dena. Dena berriztuta dago eta etxetresnak berriak dira. Guretzat, ezin hobeto!", esan du Ander Riviere Garcia 19 urteko aretxabaletarrak.

Jan-edanik ez da faltako tabernan. Freskagarriez gainera, ogitartekoak, natxoak, patatak eta gofreak eskaintzeko asmoa dute, besteak beste.

Datorren egunean Santixako jaiak hasiko dira Atxondon

J.D. ATXONDO

Uztailaren 25etik 28ra Santixako jaiak ospatuko dituzte Atxondon. Eguenean hasiko dute jaiak, Santixau egunean, 11:30eko mezagaz. Ondoren, Andasto dantza taldeak saioa egingo du eta txopo txikia apainduko dute. Saiheski pintxoak egongo dira salgai.

Barikuan, 19:00etan, patata zuritzeko txapelketa egingo dute. Jai batzordekoek banaturiko patatak arinen eta ondoen zuritzen dituenak Etxoste jatetxean lagun birentzako bazkaria irabaziko du. Ondoren, patatekin tortillak egin eta afari musikatuaren bueltan batuko dira.

Zapatu eguerdian paella txapelketa dago, eta, ondoren, herri bazkaria. Euskal musikagaz girotuko dute eguna. Bazkalostean bingoa egingo dute.

Azkenik, domekan, porra txapelketa eta briska eta mus txapelketetako finalak jokatu dituzte. Jaiak otzara eder baten zozketagaz amaituko dira.

Saneamendu sare berria Goitondo industrialdean

URA agentzia hoditeria sartzen hasi da Mallabiko industrialdetik Ermuraino. Ia lau milioi euroko inbertsioa egingo du. Lanek 14 hilabeteko egikaritze epea dute

J.D. MALLABIA

Ekainetik martxan dira Mallabiko Goitondo industrialdetik Ermurainoko saneamendu hoditeria sartzeko lanak. URA agentziaren egitasmoa da eta 3,8 milioi euro inbertituko ditu azpiegitura berria egiteko. Lanek 14 hilabeteko egikaritze epea dute. Lan hauen aurretik, industrialdeko kolektorea eraberritu eta ingurua urbanizatu zuten. Obra hori industrialdeko enpresek eurek ordaindu zuten eta hiru milioi euroko inbertsioa eskatu zuen, udal arduradunen esanetan.

Errepideko lanak

Goitondo industrialde inguruan beste obra bat ere badago au-



Saneamendu berriko lanak industrialderako sarreran, Hambre jatetxearen ondoan.

rreikusita, eta Bizkaiko Aldundiak dagoeneko eginda eta aurkeztuta dauka BI-2301 errepidean Goitondo industrialderako eta Berano nahiz Arandoño auzoetarako sarrerak hobetzeko proiektua. Egitasmoaren helburua tarte horretako segurtasuna

hobetzea da. Esaterako, industrialderako eta auzoetarako sarrera-irteerak seguruago egiteko, erre zentralak egingo dituzte: itxarote erreaiak eta azelerazio erreaiak. Proiektuak 3,9 milioi euroko inbertsioa eskatuko du.


Iruñerako irteerarako izen ematea hasi dute

Mañariko Ursula Donea adinekoen elkarteak antolatu duen egunpasa irailaren 5ean izango da

J.D. MAÑARIA

Mañariko Ursula Donea adinekoen elkarteak Iruñerako egunpasa antolatu du irailaren 5erako. Izen ematea abuztuaren 30ean amaituko da. Prezioa 25 euro da bazkideentzat, eta 30 euro bazkide ez direnentzat. Interesa dutenek ursuladonea@gmail.com helbide elektronikoaren bitartez egin dezakete izen ematea.

Iruñeko hainbat toki esanguratsu ezagutuko dute autobusean, eta, ondoren, entzierroaren oinezko ibilbide ezaguna egingo dute. Eguerdian hiriko jatetxe batean bazkalduko dute denek elkarregaz.



Natxo Conde.

"Jaietako osagaiak islatzen saiatu naiz"

J.D. IZURTZA

Natxo Conde abadiñarrak bigarren urtez irabazi du Izurtzako jaietako kartel lehiaketa. 2022an legez, "jaietako osagaiak islatzen" ahalegindu da kartelean: dantzariak, gastronomia txapelketak... Trokotxa basurdeak toki dezente hartzen du eta jaietako maskotari "omenaldia" egiteko modua izan da. *Izurtzako jaiak 2024* testua idazterakoan, herriko historia "aberatsari" erreferentzia egin gura dion letra tipoa aukeratu du.

OSTALARITZA GIDA

DURANGO

BASA Eroateko janaria



Untzillatx, 9
Tel.: 747 421 104

Etorri eta eraman edonon jateko gure sukaldean prestatutako platerak. Kuxkuxeatu gure instagramean menua, karta eta nobedade guztiak.

 @basa.durango



DURANGO

IBAIZABAL



Ibaizabal taldea, 2B
Tel.: 946 550 185

Plater konbinatuak, hanburesak, ogitartekoak eta kazolatxoak. Ostiraletan pintxopotea!

IURRETA

GAUARGI



Dantzari, 4 behea
Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan mollete eta errazioak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.

 @gauargitaberna

ZORNOTZA

XIBERU



Zezilia Gallartzagaitia, 9
Tel.: 946 181 758

Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak astebururo. Giro alai eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

 Xiberu Taberna
 @xiberutaberna



ZORNOTZA

JAUREGIBARRIA Jatetxea



Bideaur, 4
Tel.: 946 30 16 32

Ekainaren 25etik abuztuaren 31ra udako ordutegia. Afariak terrazan. Domeka gauak eta astelehenak itxita.



DURANGO

OLAJAUREGI



Kurutziaga, 52
Tel.: 946 200 864

Ostegun eta ostiral eguerdian 26 -tan eguneko menua; bestalde, ostegunetik igandera eguerdian 'Dastatze menua' 45 -tan. Gauetan, 'Pikoteo' izeneko karta berezia. Zuek ezagutzeko prest gaude! Etorri eta gozatu gure jaki, ostatu eta jatetxeaz.

 Hotel Olajauregi
 @hotel_olajauregi_jatetxea

5.300 lagun batuko dira marmitako txapelketan

Hainbat ekitaldi egongo da asteburuan Zornotzako jaietan; besteak beste, kontzertuak, kirol ekitaldiak eta marmitako txapelketa. Astelehenean lehertu zen festa Zornotzan, Larrea ikastetxeko kideek pregoia irakurri eta txupina jaurti eta gero

A. M. ZORNOTZA

Asteleheneko txupin jendetsua- ren ondoren, jaietako lehenengo asteburua ate joka dute Zornotzan. Larrea ikastetxeko kideek irakurri zuten pregoia, ikastetxearen 50. urteurren ospakizuna borobiltzeko. Gero, jaietan murgildu ziren zornotzarrak. Asteburuan hainbat ekitaldi izango dute gozatzeko. Musikari dagokionez, adibidez, Anje Duhalde, Izaro, Tanxugueiras eta Eztandap talde zornotzarra igoko dira agertokira. Zapatuko marmitako lehiaketa ere jaietako ekitaldirik jendetsuenarikoa izaten da eta milaka lagun batzen ditu; hain zuzen ere, aurten 318 kuadrillek eman dute izena; 5.300 lagun inguru batuko dira.

Beste ekitaldirik jendetsuenerik bi helduen eta haurren danborradak izango dira; uztailaren 24an eta 26an izango dira, hurrenez hurren. Datorren astera begira, nobedade garrantzitsu bat ere nabarmendu dute:



Astelehenean hasi zituzten jaiak

uztailaren 25eko aitita eta amamen jaia. Egitarau osoa Agendan ikusi daiteke.

Gune moreak

Jaiak irauten duten bitartean, gune moreak egongo dira Ze-

laietan eta Zubiondon, informazioarako, harrerarako eta aholkularitzarako. Horrez gainera, 747 485 126 telefono zenbakia ere eskuragarri ipini dute. Ainhoa Salterain alkateak erasorik bako jaiak gura dituztela azpimarratu zuen jaien aurkezpenean.



Ezabatu duten horma irudia.

Zornotzan zeresana eman du horma irudi bat ezabatzeak

Martzel Do Nascimento 'Martz' artistak eginiko horma irudia ezabatu dute, udal ordenantza bete ez duelakoan

Ekaitz Herrera ZORNOTZA

Martzel Do Nascimento 'Martz' artista zornotzarrak migratzaileen eskubideen aldeko horma irudi bat margotu du, oraintsu, Zornotzako herri mugimenduak migratzaileei aterpe emateko erabili izan duen etxebizitza bloke bateko horman. Eta udalak horma irudia ezabatu du asteen, kaleak garbitzeari buruzko udal ordenantza bete ez duela arrazoituta. Irudia ezabatzeak eztabaida piztu du Zornotzan. "Migratzaileek batetik bestera mugitzeko zein bidaia-tzeko duten giza eskubidea al-

darrikatu gura izan dut. Aurreko horma irudia ere neuk egin dakoia zen baina hondatuta zegoen", jakinarazi zion artistak kultura zinegotziari mezu elektroniko baten bitartez. Baina joan zen asteen ezabatu egin zuten murala. Ainhoa Salterain alkateak garbiketa ordenantzagaz lotu du horma irudia ezabatzea. "Ez diogu ezin denik hormarik margotu, baimen bi behar direla baino: hormaren jabearena eta udalarena. HAZen eskabide orri bat dago, eta behin hori beteta erantzun positiboa itxaron behar da", argitu du.

Ilosvai talde hungariarra oporren aurretik Berrizen

Folklore jaialdian Hungariako Ilosvai taldea izango da protagonista; martitzenean egingo dute emanaldia



Ilosvai taldea. ILOSVAI

A. M. BERRIZ

Martitzenean, hilak 23, Berrizen folklore jaialdia egingo dute Kulturaz Blai zikloaren barruan; oporraldiaren aurreko azken emanaldia izango da. Ilosvai talde hungariarra 1951n sortu zuten, hango dantza folklorikoak sustatzeko. Andrea Kupec da taldeko zuzendaria. Berrizen ez ezik, Euskal Herriko beste hainbat herritan ere egongo dira emanaldiak egiten; besteak beste, Getxoko Nazioarteko Folk Jaialdian. Irailean, oporretatik bueltan, beste ekitaldi bi egongo dira Berrizen. Lehenengoa irailaren 19an izango da. Tomaxek eta Muxik *Azken festa* klown ikuskizuna egingo dute. Eta irailaren 26an Markeliñek *Art-ilusio* ikuskizuna egingo du. Emanaldi bi hauek eskolako patioan izango dira, 17:00etan.

301 proposamen aurrekontu parte hartzaileetarako, Elorriko

Elorriko ikasleek beste 163 proposamen egin dituzte; irailen bigarren fasea hasiko da, bozketarena

A. M. ELORRIO

Elorriko Udalarentzat "funtsezkoa" da bizilagunen iritzia kontuan hartzea 2025eko aurrekontuetarako. "Udal aurrekontu parte hartzaileen prozesua martxan ipini dugu eta elorriarrei aktiboki parte hartzeko aukera eman gura diegu udalerrria hobetzeko diren proposamenak aurkezteko. 50.000 eurora arteko aurrekontuak izango dira", azaldu dute ohar baten bitartez. Prozesuaren lehenengo fasean 200 bat elorriarrek parte hartu dute eta 301 proposamen egin

dituzte. Horiez gainera, Elorriko Udalak beste 163 proposamen jaso ditu Txintxirri ikastolatik, eta Elorrio BHI eta Lourdesko ama ikastetxeetatik aurreko urteetan izandako harrera ona dela-eta, udalak gazteen parte hartzea sustatzen jarraitu gura du. Baturiko proposamen horiek udal teknikariek egindako azterketa tekniko eta ekonomikoa gairatu beharko dute bigarren fasea pasatzeko. Bigarren fase horretan, herritarrek bozkatu egingo dituzte proposamen horiek.

Uda honetan jarraitu Durangaldeko berririk freskoenak **Anbotoren kanalean**

Durangaldeko azken
albisteak jaso gura
badituzu batu Anbotoko
whatsapp kanalera



**Eskaneatu
QR kodea:**



* Izan zaitetz berriemaile ere.
Bidali zure argazki eta bideoak

> anboto

**anboto
kide**

Anbotokideen
txokoa

Oporretara goaz, irailean
bueltatuko gara zozketa
eta sari gehiagorekin.

Egin Anbotokide eta
gozatu gure zozketa eta
abantailez!

UZTAILEKO IRABAZLEAK

Gosaria Xiberun:

Meritxel Etxagibel eta Andoni Lopez de Armentia

Aukan izozkiak:

Olaia Orbegozo

Hotel Balneario Areatzan gaua:

Mireia Aranzabal Elorza

Okm:

batzen gaituen
distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman
izena gure webgunean.

Egin zaitetz Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Santamañetan murgildu dira otxandiarrak

Udaletxeko balkoitik txupinazoa jaurtita, askotariko ekitaldiz beteriko egunak dituzte aurretik Otxandion, uztailaren 22ra bitartean. Gaur umeen eguna ospatuko dute, eta, zapatuan, Mungiako TOC taldea kartelburu izango duen kontzertua egongo da

Aitziber Basauri OTXANDIO

Dendari eta tabernariak udaletxeko balkoitik jaurtiriko txupinazoz batera lehertu zen jai giroa eguaztenean Otxandion. Uztailaren 22ra bitartean, santamañek eskainitako aukera zabalaz gozatzeko egunak dituzte aurretik. Atzo Santa Maña eguna ospatu ondoren, gaur etxeko txikienean txanda da.

Gaur 6. mailako ikasleak igoko dira udaletxeko balkoira txupina botatzera. Gazteenentzako ekitaldiz jantzitako egunari hasiera emateko, tailerrak, puzgarriak, jolasak, sukaldaritza erronka eta DJ Xaiborren musika izango dira, besteak beste. Kuadrillen arteko play backak borobilduko du eguna.

Tradizio handiko ekitaldiek ez dute hutsik egingo hurrengo egunetan ere; dantzarien saioa, herriko bandaren kalejira, eta San Martineko paella txapelketa izango dituzte. Baita sokamuturra eta 1936ko bonbardaketan



Dendari eta tabernariak jaurti zuten txupinazoa, eguaztenean.

hildakoei eginiko omenaldia ere. Horrez gainera, zapatuan, Mungiako TOC taldea kartelburu izango duen kontzertua egongo da. EIRE, HOFE X 4:40 eta Malakias MX3 taldeak ere igoko dira oholtzara. Domekan, herri kirolen erakustaldia eta pilota partiduak egongo dira.

Gazte Asanbladak, Itaia taldeagaz batera, eraso matxisten aurkako protokoloa ipiniko du martxan, aurten lehenengoz.

“Egunerokotasunean jasaten ditugun erasoz gainera, jai giroko testuingurua erasoak areagotzeko eta normalizatzeko aprobetxatzen da askotan, eta emakumeok babesik barik edo lekuz kanpo sentitzen gara. Horren aurrean, indarkeria matxista errotik gainditzeko instituzioen ezintasuna agerian geratu da”, adierazi dute, eta ez dutela inolako erasorik onartuko gaineratu.

Abadiñon ipini dituzten komun publiko biak erabilgarri daude

Euretariko bat Traña-Matienako plazan dago, eskola ondoan. Bestea, Muntzaratzen, aterpearen aldamenean

Ekaitz Herrera ABADIÑO

Abadiñoko Udalak martxan ipini ditu orain aste batzuk Traña-Matienan eta Muntzaratzen instalatu zituen komun publikoak. Azpiegitura biak egunero-egunero egongo dira erabilgarri, 08:00etatik 22:00etara. Komun bietan garbitzeko sistema dago integratuta, baina Abadiñoko Udalak jakinarazi du garbiketa zerbitzua egunero arduratuko dela azpiegiturok garbitzeaz. Instalazioetariko bat Traña plazako iturrien ondoan dago, auzoko eskola ere-



Muntzaratzeko komuna. ABADIÑO KO UDALA

muaren aldamenean. Bestea Muntzaratzeko aterpearen ondoan kokatu dute, kirola egiteko kantxaren eremuan.

Azpiegitura biak 110.000 euroko aurrekontuagaz instalatu dituzte. Udalak gogoratu duenez, komun publikoak ipintzea izan zen iazko aurrekontu parte hartzaileetan babesik handiena jaso zuen proiektuetariko bat. Hasierako asmoa komun bakarra ipintzea izan zen arren, udalak bigarren bat ipintzea erabaki zuen, zerbitzua auzo gehiagotara zabaltzeko helburuagaz.

Horrez gainera, Zelaieta auzoko frontoian dauden komunak ere erabilgarri daudela gogoratu du udalak. Azken hauek honako ordutegi hau daukate: asteleheneetik barikura 08:30etik 21:30era.



Dantzariak, iaz, Garaiko jaietan. UNAI OLASO

Kaparrak, Ezten Giro, mariatxiak eta pailazoak Garaiko jaietan

Asteburu honetan hasiko dituzte jaiak. Domekan, nagusien bazkaria eta bertsolariak izango dituzte

Ekaitz Herrera GARAI

Bihar hasi eta San Inazio egunera arte zer ikusi eta zer gozatu ugari egongo da Garaiko jaietan. Ekitaldiak bihar bertan hasiko dituzte, Asto trail kirol probaren laugarren edizioa jokatuta. Kirolariek proba proposak izango dituzte aurretik hauspoa berotzeko. Eta behin motorrak berotuta, domekaz gozatzeko ordua helduko da. Hilaren 21ean, 14:00etan, Garaiko nagusiek bazkaria egingo dute Otea Loran elkartean, eta Elizabarriko hormak bertso doinuekin beteko dira 19:00etan. Julio Soto, Alaia Martin, Igor Elortza eta Alaitz Katarain bertsolariak kantatuko dute. Eurekin batera, Iruri Altzerreka garaitarra egongo da bertsolarako gaiak eta argibideak ematen. Uztailaren 24tik 26rako egunetan jaietako alderik tradizionalena plazaratzeko tartea

izango dute. 24an, Santixau bezperan, Donien Atxa jasotzeko ekitaldia egingo dute, ezpata-dantzariak lagun. 19:00etan izango da. 25ean eta 26ean prozesioak eta ezpatadantza saioak egingo dituzte.

Animazio ugari

Egitarauan nabarmentzen diren beste ekitaldietariko batzuk erromeria, mariatxiak, rock kontzertuak, umeentzako parkea, gazteen bazkaria, elektrotxaranga eta askotariko lehiaketak dira. Aipatzekoa da, halaber, Kiki, Koko eta Moko pailazo historikoek txikienentzat egingo duten emanaldia. Pailazook 1988an taularatu ziren lehenengoz, eta ia 40 urte daramatzate Euskal Herriko umeen artean irribarrea sortzen.

Jaietako egitarau osoa *anboto.org* atarian edo astekari honen Agenda atalean (25. orrialdea).

Garaiko kirol instalazioa, udaberrirako zabalik

Garaiko Udalak kirol ekipamendu berria eraikitze lanak esleitu ditu. Eraikina frontoiaren eta bolatokiaren artean ipiniko dute, azken honi zati bat kenduta. Azpiegiturak 80 metro karratuko azalera izango du. Udazkenean hasiko dituzte lanak

Ekaitz Herrera GARAI

Garain aurrera doa kirol azpiegitura berria eraikitze prozesua. Udalak, lehiaketa publikoa egin eta gero, eraikin berria egiteko ardura esleitu dio enpresa bati. Udazkenean hasiko dituzte lanak, eta, aurreikusitako egutegian gorabeherarik ez badago, kirol eremu berria 2025eko udaberrian egongo da zabalik. Ekipamendu berria frontoiaren eta bolatokiaren arteko eremuan ipiniko dute, azken honi zatitxo bat kenduta. Instalazioak biltegi txiki bat ere izango du, kirol materiala gordetzeko eta herriko dantzarien materiala gordetzeko balioko

duena. Horrez gainera, kirol ekipamendua frontoiko aldagelekin lotuko dute, azpiegitura bien erabilera optimizatzeko alde-ara. Azpiegitura berriak 80 metro karratuko azalera izango du guztira.

Erramun Osa alkateak eguazteneko osoko bilkuran zehaztu zuenez, azpiegitura berria eraikitze aurrekontua 314.500 eurokoa izango da: "Bizkaiko Foru Aldundiak diruz lagunduko dio proiektuari. Kirol Sailak 133.153 euroko laguntza esleitu dio egitasmoari. Bestalde, Aldundiko Azpiegitura Sailak 54.200 euroko ekarpena egingo du". Aipaturiko diru laguntza biez

gainera, Osak hirugarren bat lortzen ahaleginduko direla ere iragarri zuen. Eusko Jaurlaritzak landa eremuetako herriak sustatzeko darabilen diru laguntza litzateke hirugarren hori, Erein programaren barrukoa. "Kirol ekipamendu berria aurrerapauso izango da herritarrentzat; besteak beste, Kultur Etxeko espazioa txiki geratu delako, gimnasia-eta egin ahal izateko, hainbat ikastarotan jendea kanpoan laga behar izan delako eta kirola egin ahal izateko beste aukera bat zabaltzen zaielako herritar guztiei, batez ere nagusiei eta gazteei", adierazi du alkateak.

Astehenean, azken deialdia



Maspe kalean egindako elkarretaratze baten artxiboko irudia.

A.B. IURRETA

Hogeitaka urteetan astehenero elkartu dira Iurretan, euskal preso eskubideen alde, baina herritik jaiotako ekimen horrek bere zikloa bete duela iritzita datorren astehenean azken elkarretaratzea egingo dute, 19:30etik 20:00etara. "Hainbat dira lorpenak, baina lan handia dago egiteko, eta, horretarako, beste bide batzuk jorratuko ditugu", esan dute. Hileko azken barikueroko egiten duten elkarretaratzea egiten jarraituko dute.

DIBA
K O O P E R A T I B A

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

BERRIZKO AGENDA KULTURALA

Folklore jaialdia - Ilosvai (Komentuan)
Azken festa (Eskolako patioa)
Art-Ilusio - Markeliñe (Eskolako patioa)

Uztailak 23, 18:30
Irailak 19, 17:00
Irailak 26, 17:00

Programazioa

Martxan da ANBOTOren Udako Argazki Lehiaketa


Argazkiak irailaren 15era arte bidali daitezke. Eskualdeko zein kanpoko irudirik onenak sarituko dira.

Ekaitz Herrera **DURANGALDEA** Argazkiak munduko edozein tokitatik bidali daitezke *anboto.org* atarira, lehiaketarako propio sorturiko atalera. Era berean, argazkiak 688 635 041 whatsapp zenbakira ere bidali daitezke.

Parte hartzaile bakoitzak gehiezin argazki bi ipini ahal izango ditu kategoria bakoitzeko. Hau da, lau guztira. Irakurleen saria aukeratzeko bozketa irailaren 16tik 22ra egingo da. Kategoria horretan, eskualdeko eta Du-

rangaldetik kanpoko argazkiak lehiatuko dira. Botorik gehien eskuratzen dutenek poltsikoratuko dute saria. Epaimahaiaren sarian ere eskualdeko zein eskualdetik kanpoko irudiak sarituko dira.

Sarien artean, honako hauek daude jokoan: smartbox bat, Databostek emandako bluetooth aurikularrak, egonaldia Garai-ko Landatxean, eta Errigoraren produktuekin osaturiko otzara. Argibide guztiak *anboto.org* atarian daude.



lazgo argazki bat. ARANTZA TXINTXURRETA



POLITIKAN

CARLOS GARCIA
PP

Mikeldi Durangora

Mikeldi Durangoko eta Durangaldeko Merindade osoko ondare kultural, arkeologiko eta historikoaren parte da.

Durangon K.a. III. mendean egin zen eta Durangon segidako alditan aurkitu zen, XX. mendean hasieran zegoen lurren jabeek utzi zuten arte Foru Aldundiak Bilboko museo batera eramane zezan, gaur egun Euskal Museoa.

Bada, nire asmoa eta konpromisoa Mikeldi bere tokira itzultzea da, hau da, Durangora. Horretarako, Durangon aurkitu

NIRE ASMOA ETA KONPROMISOA MIKELDI BERE TOKIRA ITZULTZEA DA, HAU DA, DURANGORA

zen lur haietako jabeen oinordekoekin hitzarmena daukat jada.

Gainera, hurrengo osoko bilkuran proposamen bat aurkeztuko dut bilkuran, Bizkaiko Foru Aldundiari Mikeldia Durangora pasatzeko eskatzea adostu dezagun.

Horrela, Mikeldi Durangon izango da berriro eta betiko, eta bertan emango diogu hain garrantzitsua den zerbaitek merezi duen garrantzia eta protagonismoa, Euskadi osoan bakarra den zerbaitek.

DURANGALDEA ASTEON

Izen handiko musikariak Bonus Track jaialdian

DURANGO Azaroaren 16an Bonus Track izeneko jaialdia egingo dute Durangoko Landako Gunean. Hamabi taldek parte hartuko dute: El Drogas, Soziedad Alkoholika, Su Ta Gar, Tropa do Carallo, Boikot, Kaos Urbano, Josetxu Piperrak, Manifa, Tremenda Jauria, The Lio, Nafarroa 1512 eta Neskatasuna taldeek joko dute. Sarre-arak 38 euroan erosi daitezke jaialdiaren webgunean.

Zubikurtze, Zubipunte eta Zubizabala, lotuta

ZORNOTZA Zornotzako Udalak amaitu ditu Zubikurtze, Zubipunte eta Zubizabala auzoak lotzen dituen bideko lanak. Metro biko zabalera duen pasealekua egin dute, material naturala erabilia; zurezko zintarri bi ere ipini dituzte bide ertzetan. Lanek 100.000 euroko aurrekontua izan dute. Ainhoa Salterain alkateak zornotzarren bizi kalitatea hobetzen jarraituko dutela adierazi du.

Izen berria Durangoko kale eta plaza banari

DURANGO Durangoko Udalak parte hartze prozesu bat hasi du herriko kale eta plaza berri bana izendatzeko. Kale berria Komentukaletik Santasusanostera doana da. Plaza, Zirarmendieta, Bernardo Gabiola eta Faustebidea kaleen arteko eremuari dagokio. Oraingoan, herritarren proposamenak jasoko dituzte. Informazio gehiagorako *partehartu.durangoeus* atarira jo daiteke.



INDAR X SPORT

Sune Larrea Espainiako txapelkun kickboxingean

ELORRIO Joan zen asteburuan gazte eta kadete mailako Espainiako kickboxing txapelketak lehiatu zituzten Guadalajaran, (Gazte-la-Mantxa). Durangaldeko Indar X Sport eta Laureano Lara taldeko gazteek zazpi domina eskuratu zituzten, euretariko bi urrezkoak. Sune Larrea elorriarra txapelkun geratu zen bigarren urtez jarraian. Aurten Kick Light modalitatean lortu du garaipena.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: **Bixente Kapanaga 9 - lurreta**
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzirik kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

MAÑARIKO ANDRA MARI JAIK 2024



MAÑARIK
JAIK



ABUZTUAK 14-16

2024



JAI EGITARAUA



DUPLA

KONTZERTUA Dupla.
Abuztuak 14, eguaztena, 22:30ean.

ABUZTUAK 14

12:30 Pitxitxiren itzulera
Herriko trikitilariak kaleak alaituko dituzte.

13:00 Txupinazoa, kanpai hotsa eta Pitxitxiren igoera
Herriko gazteek txupinazioa botako dute.

14:30 Herri bazkaria. Ondoren, igel eta mus txapelketak

16:00 Egurrezko jolasak

17:00 Karabina-tiroa
Ateneo zinegetikoa, Mugarrak antolatuta.

18:30 Gazte Olinpiadak

22:30 Kontzertuak: Xiberoots + Dupla + DJ Kuku
04:00etatik 06:00etara bitartean autobusa ibiliko da etengabe Mañaritik Durangora. Doakoa da.

ABUZTUAK 15

ANDRA MARI EGUNA

07:00 Garbiketa

10:00 Kalejira txistulariekin

11:00 Meza Kirikiño abesbatzaz
Ondoren, dantzariak.

12:30 Pilota partiduak:
Lau eta erdian: **Etxebarría II.a - Iribarren**
Binaka: Victor - Bernaola / Arteaga II.a - Merino II.a

12:30 Puzgarriak haurrentzat

18:30 Herri Kirolak:
Haritz Aranguren, Urdax Magunazelaia, Ioritz Gisasola eta Karmele Gisasola.

20:30 Txistorrada

23:00 Kontzertua:
Mariachi Imperial Elegancia Mexicana

ABUZTUAK 16

SAN ROKE EGUNA (MOZORRO EGUNA)

Mozorroetarako gaia: Artea

11:00 Meza
Ondoren, dantzariak.

12:00 Paella txapelketa

14:30 Paellak aurkeztu eta sari banaketa

18:00 Briska txapelketa
Oharra: aurretik izena eman beharko da 17:30etik 18:00etara bitartean kultur etxe kanpoan, bikote kopuru mugatu batek jokatu ahal izango duelako. Bikoteak ailegatu ahala apuntatuko dira, mugara heldu arte.

Errose Bustintza kultur etxean

19:00 Burrumba elektrotzaranga

21:30 Pitxitxiren agurra

22:30 Erromeria: Lehian



LEHIAN

herriko taska

HERRIKO TASKA
mañaria

Udaletxeko Plaza, 1
Tel.: 944 351 262

Maderas Zugazagoitia y Agirre S.L.

Aldegoiena Auzoa, 2 -A
MAÑARIA

Tel/Faxa: 94 681 87 98
zuagi@hotmail.com

DURANGALDEKO NATUR ZIENTZIEN MUSEOA

HONTZA MUSEOA

EBARISTO BUSTINZA KIRIKIÑO KALEA, 18
48212 MAÑARIA (BIZKAIA) / TL.: 94 621 65 55

www.hontzamuseoa.eus

GARATE

Mañondo Baserria, 10
Tel.: 946 815 600
48213 Izurtza



Dupla talde aguraindarrak eta Xiberoots taldeak (goian) kontzertua emango dute Mañarian. XIBEROOTS TALDEA

Jaiaz gozatzeko aukera andramarien eskutik

Mañariko gazteek jaurtiriko txupinazoagaz hasiko dira Andra Mari jaiak, abuztuaren 14an. Musika, kirola, gastronomia lehiaketak eta umeentzako ekitaldiak. Pitxitxi lagun dutela, mañariarrek askotariko ekitaldiz beteriko hiru egun izango dituzte

Aitziber Basauri MAÑARIA

Herriko gazteek jaurtiriko txupinazoagaz hasiko dituzte andramariak aurten Mañarian. Hala ere, aurretik, trikiti doinuek alaitutako ongietorri beroa egingo diote mañariarrek Pitxitxiri, azken urteetako tradizioari eutsita. Jarraian, udaletxeko balakoira igoko dira eta kanpai hots artean jaurtiriko txupinagaz batera lehertuko da jai giroa herrian. Abuztuaren 14an hasi eta 16ra bitartean, askotariko ekitaldiekin gozatzeko aukera egongo da Mañarian.

Kontzertuak, kirol erakustaldiak eta etxeko txikientzako ekitaldiekin osaturiko egitaraua prestatu du Jai Batzordeak egun horietarako. Abuztuaren 14an bertan, Aguraingo Dupla eta Zuberoako Xiberoots taldeek kontzertua emango dute, plazan. Bestalde, Andra Mari egunean, Mariachi Imperial taldearen doinu mexikarrak nagusituko dira.

Herri kirolen erakustaldia eta pilota partidua ere antolatu dituzte abuztuaren 15erako. Etxebarria II.a eta Iribarren arituko dira aurrez aurre lehenengo,

lau eta erdian. Ondoren, binakako partiduak hasiko dira: Victorrek eta Bernaolak Artega II.a eta Merino II.a izango dituzte aurre aurre. Horrez gainera, Haritz Aranguren, Urdax Magunazelaia, Ioritz Gisasola eta Karmele Gisasola herri kirolarien lana ikusteko aukera ere izango dute mañariarrek zein Mañariara doazen denek. Umeentzako puzgarriekin, Gazte Olinpiadekin eta dantzarien emanaldiagaz borobildu dute jai egitaraua, besteak beste.

Mozorro Eguna

Andramariak agurtu baino lehenago, Mozorro Eguna ospatuko dute. Artea da Jai Batzordeak mozorrotzeko proposatu duen gaia. Irudimenari tiraka egin eta mozorroa jantzita irtengo dira mañariarrek kalera. Dantza emanaldia eta paella txapelketa antolatu dituzte egun horretarako. Eta Burrunba elektrotxararako bazkalostea girotzeko ardura hartuko du. Pitxitxi agurtu ondoren, Lehian plaza taldearen erromeria doinuekin dantzatzeko aukera ere egongo da. Hasi da atzera kontaketa.

Homyvet
Albaitari-klinika integratiboa

Albaitari-klinika naturala ingurune natural batean

www.homyvet.com
608 676 915

Andra Mari, 4 - 48212 Mañaria

ALBAÑILERIA Y CONSTRUCCIONES MOU S.L.

MOU

ERA GUZTIETAKO LANAK EGITEN DITUGU
GREMIOEN KOORDINAZIOA

construccionesmou@gmail.com
Tel.: 672 441 607

Gaztelu
CARPINTERIA

656 787 524/ 699 229 576

MAÑARIA HERRIKO DENDA

Ebaristo Bustinza Kirikiño, 9
Mañaria- 48212
Tel.: 611 57 0213

Astelehenetik barikura: 08:30 - 14:00 / 16:00 - 20:00 Zapatuetan: 08:30 - 14:00

URANGA
BASERRIKO OGIA

MAÑARIA
635 740 236

CONSTRUCCIONES AMANTEGUI S.L.

E. B. Kirikiño kalea, 21
48212 MAÑARIA (Bizkaia)
Tel.: 679 730 244

ARRI TOKI
TABERNA

Mañaria
94 681 69 30

MALLABIKO ANDRA MARI JAIAK 2024



JAI EGITARAUA



DANTZA Tio Teronen semeak, 'Haurreskola'.
Abuztuak 15, eguena, parkean (euria bada frontoian), 19:00etan.

ABUZTUAK 14 UMEEN EGUNA

11:30-13:00 Mallabiko trikitilariak giroa berotzen

12:00-14:00 / 16:00-18:00 Umeentzako haur parkea
Frontoian eta parkean

18:00 Apar festa
Parkean

19:00 Txupinazoa, Mendibil abesbatzaren eskutik
Ondoren, kale animazioa
Motociclones elektrotxarangagaz

19:30 Txokolatada
Plazan. Euria bada, parkeko aterpean

21:30 Pilota partiduak
- Elezkano II.a-Eskuza / Dario-Erostarbe
- Altuna III.a-Tolosa / Elordi-Martija
Sarrerak abuztuaren 1etik 13ra udaletxean salgai: 18 euro.
Langabe, ikasle, jubilatu eta pentsiodunentzat 12 euro justifikazio txartela erakutsita.
Partidu egunean leihatila 21:00etan zabalduko da eta sarrerek prezio bakarria izango dute: 25 euro.
Mallabia I Kirol Etxean.

ABUZTUAK 15 ANDRA MARI EGUNA

11:00 Meza
Jasokunde parrokan

12:30 Mallabiko dantzariak
Herriko frontoian

13:00-15:00 Erromeria EinGO taldeagaz

17:00 Tute txapelketa
Izen ematea: 10 euro bikoteko.
Sariak: Irabazleak 120 euro eta garaikurra, bigarrenak 100 euro, hirugarrenak 80 euro, laugarrenak 60 euro.
Kontzejuzarreen

17:00 Mallabiko gizonetzkoen XXXIV. eta emakumezkoen IV. harri-jasotze Saria. Harri txikia.
Gizonak: Jon Gisasola 'Zelai V.a' (Mallabia), Eneko Bilbao (Kortezubi), Unai Osa (Ondarroa), Pablo Campo (Agurain), Mikel Marijuan (Ezkerekotxa), Mikel Lopetegi 'Urta' (Zarautz), Iraitz Arruti 'Burdin txiki' (Zarautz), Aritz Aranguren 'Norde' (Azkoitia) eta Petre Bulgarea (Palacios de Goda).
100 kiloko zilindroagaz eta 100 kiloko bolagaz arituko dira.
Emakumeak: Karmele Gisasola 'Zelai III.a' (Mallabia), Goizeder Abendibar (Mallabia), Aida Ugalde (Zornotza), Patricia Martin (Bilbo), Ainitze Zumeta (Zarautz) eta Eider Garcia (Baroja). 62,5 kiloko zilindroagaz eta 62,5 kiloko bolagaz arituko dira.
Sariak: Irabazleak 900 euro garaikurra eta txapela, bigarrenak 750 euro eta garaikurra, hirugarrenak 600 euro eta garaikurra, laugarrenak 500 euro. Gainerako parte hartzaileentzat 300 euroko dieta.

Dagoen marka hausten duenak 200 euro irabaziko ditu.
Herriko frontoian.

19:00 Tio Teronen semeak, 'Haurreskolari' ikuskizuna
Parkean. Euria bada, frontoian

20:00 'Ez da kasualitatea' bertso saio musikatua
Bertsolariak: Miren Amuriza, Ane Labaka, Aner Peritz eta Aissa Intxausti. Gai jartzailea: Iruri Altzerreka. Musikariak: Oihana Rodriguez eta Isaak Arruti.
Plazan. Euria bada, elizpean

22:30 Anari
Parkean

ABUZTUAK 16 SAN ROKE EGUNA

12:00 Meza
Jasokunde parrokan

11:00-14:00 Paella eta marmitako txapelketak
Izen ematea 11:30ean. Oinarriak: Ez dago paella edo marmitakoa egiteko derrigorrezko osagaiarik. Marmitakoa 13:00etarako aurkeztu behar da, eta paella 13:30erako, epaimahaiak dastatu eta sariak banatzeko. Talde bakoitzak bere sua ekarri behar du, butanoa edo barbakoa, baina ezin da sua lurrean egin. Bazkaritarako plater, edalontzi eta mahai-tresnak parte hartzaileek ekarri beharko dituzte. Sariak: Irabazlearentzat 110 euro, eta bigarrenarentzat 55 euro.

Mallabiko trikitilariak giroa animatuko dute
Plazan

14:00 Paella eta marmitako lehiaketetako sari banaketa

14:15 Jubilatuen bazkaria
Kontzejuzarreen

16:00 Sua taldea jubilatuentzat
Kontzejuzarreen

17:30 Kuadrillen arteko jolasak
Gazte Asanbladakoek antolatuta.
Saria: pintxotarako 20 txartel

20:00 Txerri errea. Pintxo bat, euro bat. Sagardoa doan
Parkean

20:30 Erromeria Luhartz taldeagaz. Ondoren, DJ Murraro
Parkean

Ganadu garraioa
Juan Luis Irazola

Tel.: 609 794 504
943 170 651
48269 MALLABIA

DECOMESA

DECOLETADOS Y MECANIZADOS, S.A.

**INDUSTRIARAKO
SOLUZIO
INTEGRALAK**

1994



- Bajak izapidetza
- Garabien zerbitzuko bilketak
- Eusko Jaurlaritzako KUDEATZAILE BAIMENDUA
- Gehieneko tasazioa duten autoen salerosketa
- Balio-bizitzaren amaieran deskutsatzeko tratamendua eta ibilgailuen kudeaketa
- Garabi zerbitzua 24 orduan, Euskal Herrian eta inguruetan
- Ordezko pieza erabilien salmenta

Mallabarrena poligonoa 10-12 Mallabia

946 175 490 · 632 812 666 / 632 754 180



RECICLAJES METALÚRGICOS
JESÚS M.ª CORDÓN, S.L.

Goitondo-Goikoa poligonoa, z/g- P3A - 6/8 pabilioia
48269 MALLABIA (Bizkaia) -
181 posta kutxa • 48260 ERMUA
Tfno. - Fax 943 174 581 - Móvil 619 569 595

Hondakin ez arriskutsuen
kudeatzailea: eux/038/04



HONDAKIN EZ-ARRISKUTSUEN
KUDEATZAILE BAIMENDUA EUX/008/04



HIERROS & METALES
SAINZ

TXATARREN SALEROSKETA

Areitio gaina - 48269 MALLABIA • PK 58 - 48260 ERMUA
Tel.: 943 171 400
hierrossainz@hierrossainz.es

www.hierrossainz.es

Bertsoekin hasiko dituzte Mallabiko Andra Mari jaiak

Peio Mugarzak 20. urteurreneko kontzertura begira sorturiko bertso sortako ale batzuk kantatuko dituzte

Joseba Derteano MALLABIA

Mendibil abesbatzaren txupinazoagaz eta pregoiagaz hasiko dituzte, abuztuaren 14an, Mallabiko jaiak. Eta, zelan ez, abesbatzak ondoen dakiena egiten hasiko ditu jaiak: kantu kantari. Hain zuzen ere, hainbat bertso abestuko dute.

Hauxe da bertso horien istorioa: maiatzean, 20. urteurrena ospatzeko kontzertua egin zuten pilotalekuan. Ekitaldi horri begira eta abesbatzak hala eskatuta, Peio Mugarzak urteurrenari buruzko zortzi bertso sortu

zituena, Andre Madalen doinuana. Euretariko hainbat abestu zuten, publikoagaz batera, dantzariak eta trikitilariak lagunduta. "Oso letra politak dira", esan du abesbatzako Iratxe Uribelarreak. Horregaitik, ideia ona iruditu zaie txupinazo egunean bertso sorta horretako ale batzuk kantatzea.

Maiatzeko ospakizuna mimo handiz prestatu zuten eta jendeari "asko gustatu" zitzaiola gogoratu du Uribelarreak. Herriko Jasokunde abesbatzakoek eta Gazte Alai dantza taldekoek



Mendibil abesbatzako kideen familia argazkia. MENDIBIL

ere parte hartu zuten ekimenean. Soinu teknikari baten laguntza ere izan zuten, pilotalekuko akustikagaz laguntzeko. Kontzertuan zehar *Izar ederra* eta *Maritxu nora zoaz* abestiak kantatu zituzten. Abesbatzaren-

tzat esangura berezia dute biek, orain 20 urte abestu zituzten lehenengoak direlako.

Mendibilen sorrera

Mendibil abesbatza sortu zenerako urte batzuetako ibilbidea

**JASOKUNDE
ABESBATZAKO UMEEN
GURASO BATZUEN
EKIMENETIK SORTU
ZEN MENDIBIL**



Industrias FOCS, S.L.

TROKEL PROGRESIBOEN DISEINUA ETA FABRIKAZIOA
TRESNERIAREN FABRIKAZIOA
HARI BIDEZKO PIEZAK ETA DOITASUN HANDIKO BARNERATZEA

Goitondo pol. - Goikoa, z/g
48269 MALLABIA
Tel.: 943 171 744
E-mail: focs@focs.es

www.focs.es



RHEYDE
lanabesak s.l.

- ✓ PERFILATUAK
- ✓ MOLDAKETAK
- ✓ BERRESKURATZEAK

Goitondo ind., 3. pab. - 48269 MALLABIA
184 PK - 48260 ERMUA
Tel.: 943 170 898 - rheyde@rheyde.com

LANPLASTIC

Goitondobekoa 5-9
48269 - Mallabia
943 176 049 / 688 839 329
lanplastic@lanplastic.es

DENDAPLASTIC.com



METALEN BERRESKURAPENA,
BIRZIKLAPENA
ETA KUDEAKETA

Tel.: 943 172 810
676 271 507

Excavaciones

BOLIÑA

Mallabia - Bizkaia

• 629 340 410 •

• 618 954 280 •

excavacionesbolina@hotmail.es

MAQUINARIA Y MULTIHUSILLOS, S.L.

Maymu

BURU ANITZEKO TORNUETARAKO
ORDEZKO PIEZEN ETA PIEZA OSAGARRIEN
BERRERAIKITZEA, KONPONKETA,
MANTENUA ETA SALMENTA

Goitondo Behekoa poligonoa,
3/4 nabeak MALLABIA-BIZKAIA
Tel.: 94 657 00 94
maymu@maymusl.com
www.maymusl.com



hierros
arrate, s.a.

Goitondo Industrialdea
MALLABIA
Ermuatik Markinarako bidean
127 PK - 48260 Ermua
Tel.: 943 170 612 / 943 170 616
www.hierrosarrate.es



ZELAI

HILARRIAK
KANPOSANTUKO
LANAK

Zelai - Mallabia
zelai@atxitxe.net
Tel.: 656 706 468 /
656 706 467 /
689 064 541

zeraman umeen Jasokunde abesbatzak. Jasokundeok Gabonetan eta Santa Ageda egunean baserririk baserri abestera joaten ziren urtero. Horrelako irteera batean, nagusien abesbatza berri bat egiteko ideia bururatu zitzaizen guraso batzuei. Denboragaz ideia gorpuzten joan zen, eta azkenean taldea sortu zuten.

Ez ziren musikan trebatuak, baina "afizioa eta ilusioa" sobera zuten. "Inork ez zekien solfeorik. Hasiera ez zen erraza izan. Abesti sinpleak kantatzen genituen, ahots bikoak eta antzerakoak", nabarmendu dute. Baina apurka ikasten eta aurrerapausoak ematen joan dira, gaur egungo mailara heldu arte.

Kontzertu berezia

Abesbatzak hainbat ekintza egi-ten du urtero: Santa Ageda eta Gabon batzeak, maiatz-ekain inguruko emanaldiak, Santa Zezilia egunekoa... Baina harkada biko ibilbidean hitzordu bereziak ere izan dituzte. Esaterako, 2019an Gontzal Mendibil abeslariak Mallabian emandako kontzertuan parte hartu zuten, Jasokunde abesbatzagaz

batera. Besteak beste, *Bagare*, *Bilioxik*, *Gure euskera eder maitea* eta *Memorian* abestiak kantatu zituzten. Musikari zeanurritarraren abizenak, abesbatza-zen izenak eta bien arteko lankidetzak lotura bat aditzera eman dezaketen arren, Mendibil abesbatza izenak beste jatorri bat du: Mallabiko Mendibil menditik hartzen du izena.

Pantxoa eta Peiogaz ere egin zuten gabon kontzertua 2010 inguruan. Gainera, Mikel Laboaren heriotzaren 3. urteurrenean herriko musikari eta dantzariekin batera abeslariaren kantutegiko hainbat kantagaz kontzertua eman zuten. Bestalde, urte askoan gabon inguruko ipuin bat ere egin dute, Olentzeroren eskutitz bilketarako.

Errepertorio zabala

Sortu zirenetik hona abesti asko landu dute eta errepertorio zabala osatu dute. Euskal kantak dira asko, baina esparru berriak ere arakatu dituzte, bai estilo aldetik eta baita hizkuntzari dagokionez ere. Adibidez, afrikar doinuak ez zaizkie arrotzak, eta



Mendibil abesbatzak 20. urteurrena ospatzeko maiatzean herriko pilotalekuan egindako ekitaldiko irudia. MENDIBIL

swahili hizkuntzagaz ausartu dira. "Beste erritmo batzuen bila genbiltzan. Betiketok irten gura genuen. Kanta errazak dira, nik gaztetan Jasokunden edo beste koro batean ikasitakoak", argitu du Uribelarreak.

Beste hizkuntza batzuei dago-kienez, ingelesez Leonard Coen musikariaren *Hallelujah* abesti famatua kantatua dute; baita Ennio Morriconek *Misioa* film-erako sorturiko soinu bandako *Gabriel's Oboe* ezaguna ere.

**EUREN IBILBIDEAN
BESTE HIZKUNTZA
BATZUETAN ERE
ABESTU DUTE;
ESATERAKO, SWAHILIZ**

CAPELO
Birgaikuntzak eta Berrikuntzak

SATE FATXADAK
Kanpoko isolamendu termikoaren sistema
ESTALKIAK
MERKATARITZAKO LOKALAK
ETXEBIZITZAK
ATARIAK
IGOGAILUAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA

Zeharkalea, 10 behea
ERMUA (Bizkaia)
943 172 767 / 629 401 712

URANGA
Autoak

Goitondo Ind. pab. 1 - MALLABIA
Tel. 943 17 97 17
Whatsapp 685 75 18 48

**IBILGAILUEN
KONPONKETA ETA
MANTENIMENDUA**

ondo pasau jaietan!

BETEARTE
Hondakin ez
arriskutsuen zaborteia

BI-3342 errep. Areitio garaia MALLABIA pk. 38
Tel.: 943 170 307 - Faxa: 943 176 160
info@betearte.com www.betearte.com

GOIMEK

GOIMEK ere mallabiarrekin

Ondo pasa
Andra Mari jaietan!

DANOBATGROUP

www.goimek.com

MONDRAGON

Okm: *batzen gaituen distantzia*

Abantailak

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

HITZ LIBURU-DENDA

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- %15eko deskontua sarreran

IURRETA KOPISTEGIA

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
- %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
- Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

ETXEDREAMS

- %10eko deskontua dendako produktu guztietan

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- %5eko deskontua produktu guztietan.

URRIKE LIBURU-DENDA

- %5eko deskontua liburuetan
- %10eko deskontua papergintzan

LA PERLA

- %15eko deskontua sasoiari jartzeko talaso zirkuituan
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan

NAIA GORROÑO HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta erradiografietan

HONTZA MUSEOA

- %50eko deskontua sarreretan

URALDE HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta erradiografietan

EILEKE

Psikologia, neuropsikologia, logopedia eta psikomotrizitatea

- %15eko deskontua saio solteetan



**> anboto
kide**

TABIRA BITXIDENDA

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan

PSIKOLOGIA AMOREBIETA

- %20ko deskontua zerbitzu guztietan

KEINU OPTOMETRIA ZENTROA

- Armazoizko lenteetan eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua

GAU-TU

- Dendako ehun guztietan %10eko deskontua, eta 500 €-tik gorako erosketetan %5eko deskontua atsedeen sistemetan.

SOLOZABAL ALTZARIAK

- Denda eta erakusketako produktuetan %10eko deskontua (etxeko aire-goagarrietan izan ezik)

URKIOIL GASOLINDEGIA

- Izurtzako eta Otxandioko Urkioil gasolindegietan 3 zentimoko deskontua litroko.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- % 5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

Berria!

OSASUN ETXEA

- Zatoz Osasun Etxera eta doako ebaluazio bat egingo dizugu zure gantz, ur eta muskulu-masaren portzentajearen berri emateko. (Novaline)

Berria!

ZELAI ALAI

- Udalekuetan %10eko deskontua

***Sartu zure komertzioa
Anbotokideen deskontu sarean.
Atera etekina abantailei!***



***gin zaitez ANBOTOKIDE
ta baliatu abantailez!***



UDAKO 10.ARGAZKI LEHIAKETA

Igo zure argazkiak webgunera edo
bidali 688635041 zenbakira
irailaren 15era arte

2 KATEGORIA, 4 SARI

DURANGALDEKO ARGAZKIRIK ONENA

- Epaimahaiaren saria: Smartbox-a.
- Publikoaren saria: Garai landetxean egonaldia.

DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKIRIK ONENA

- Epaimahaiaren saria: Bluetooth aurikularrak Databost-en eskutik.
- Publikoaren saria: euskal produktuen otzara Errigoraren eskutik.

Info+ www.anboto.org webgunean

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Garai
Landetxea

"Zuzenean eroso eta gustura aritu gara"

MUSIKA Nekktar hirukoteak jator punk legez definitzen du egiten duena, punk doinuak jarrera jatorragaz; gaur, Zaldibarko Goierri auzoko jaietan emango dute kontzertua

Aritz Maldonado DURANGALDEA
Alaia Cruz (ahotsa eta gitarra), Ibon Azpiri (ahotsa eta baxua) eta Nerea Ugarriza (bateria) hirukotea dira Nekktar. Batxilergotik ezagutzen dute elkar, eta aurretik Alternaria eta Etsipen taldeetan aritutakoak dira. Azpirik Meison taldean ere jotzen du. Zuzenean kontzertu batzuk eman eta gero, uda osterako lehenengo lana izango denaren grabazioa hasi gura dute. Kohatuko Joseba Romerok lagunduko die.

Jator punk legez definitzen duzuen musika.

Ibon Azpiri: Brometan sortu genuen etiketa. Punk rocka edo pop punka egiten dugu, baina letra eta jarrera jatorragaz, eta ondoen definitzen gaituen etiketa dela esango genuke. Denerik entzuten dugu, eta influentzia aldetik The Interrupters, Misfits eta Bleached aipatuko nituzke. Bertako musika asko ere entzuten dugu; talde batzuk aipatzearen: Zeker, Zikin, Tatzers, Zain eta Ezta Ilen.

Gustura orain arte emandako kontzertuekin?

Nerea Ugarriza: Hiru kontzertu eman ditugu eta oso gustura aritu gara. Apur bat urduri egon gara, batez ere Alaia eta biok, orain artean ez ditugulako instrumentu hauek jendaurrean jo. Baina, egia esateko, oso ero-



Nekktar.

so aritu gara eta oso ondo zaindu gaituzte. Etxe inguruan izan dira kontzertuak, familiagaz eta lagunekin, eta horrek ere asko errazten du.

Gaur Zaldibarko Goierri egongo zarete.

N. U.: Gaur Zaldibarren, eta aste bi barru Elorrioko Argiñetan. Etxetik hurbil oso eroso egoten gara. Auzo txikiak jaiak oso gustuko ditugu, eta Argiñetan ere, Alaia bertakoa izanda, gustura egongo gara. Etxean lez sentitzen gara horrelakoetan. Datozen asteetan Areatzara (Bizkaia) eta Zarautzera (Gipuzkoara) goaz; gure lehenengo kon-

zertuak izango dira Durangaldetik kanpora. Gogotsu gaude zelan moldatuko garen ikusteko, han ez dugulako hainbeste jende ezagutzen, eta zein sentsazio dugun ikusi gura dugu.

Bertsioak ere jotzen dituzue.

Alaia Cruz: Hiru bertsio jotzen ditugu, Amyl & The Sniffersen *Hertz*, Robynen *Dancing on my own* eta Hofe eta La Eliteren *Vampireando*. Arrazoi desberdinengaitik aukeratu ditugu, gehiegi pentsatu barik: taldea gustatzen zaigulako, ondo geratu zaigulako, edota bertsio punkian ondo jotzen digulako belarria.



Udaleko eta museoko ordezkariak erakusketaren aurkezpenean.

Paisaiak dira Durangoko museoko erakusketako ardatza

Durangoko Arte eta Historia museoko bildumako lanekin osaturiko erakusketa egongo da ikusgai

Aritz Maldonado DURANGO

Ikusgai dago Durangoko Arte eta Historia Museoa 'Paisaia, genero piktorikotik haratago' erakusketa. Museoko bildumategitik 50 lan aukeratu dituzte erakusketarako; tartean, iaz dohaintzan jasotako Jose Manuel Rozasen *Berpizkundea*, eta hurrengo erosiko diren Angel Lorrereren *Artekale* eta Alfonso W. Sena Manterolaren *Santa Maria*. Erosketa bi hauen eta biltegiko lanak erakustearen garrantzia azpimarratu du Garazi Arrizabalaga museoko zuzendariak: "Bildumako obrak erakustea oso garrantzitsua da,

herritarrenak direlako eta zer dagoen ikusteko eskubidea dutelako. Horrez gainera, euskal artista berri biren lanak erosi ditugu bildumarako". Horrela, Manterolarenean adibidez, bitxikeria modura, Andra Mariko elizpea bonbardaketaren aurretik zelakoa zen erakusten dela nabarmendu du Garazi Arrizabalaga museoko zuzendariak. Artista beraren *Durangoko mendiak* lana Donostiako San Telmo museoa dago. Ismael Iglesias durangarraren lan bat ere badago Durangoko erakusketa honetan, askotarikoak diren lanen artean.

Izarok BECen egingo du bira amaiera, 2025eko maiatzean

MUSIKA Izaro Andres mallabitarrek 2025eko maiatzaren 31n amaituko du 'Cerodenero' bira, Barakaldoko

A. M. MALLABIA

Izarok kontzertu berezi batez amaituko du *Cerodenero* diskoa aurkezteko bira. 2025eko maiatzaren 31n izango da emanaldia, Barakaldoko (Bizkaia) BECen. Artista mallabitarrek xehetasun

gutxi batzuk baino ez ditu ezaugarazi oraindino. Esate baterako, kontzertu horretan hainbat gonbidatu izango duela; horietariko bi Olatz Salvador eta Baiuca artistak. Izarok urte hasieran hasi zuen bere ibilbi-

deko hirugarren lana den *Cerodenero* aurkezteko bira, eta hile hauetan, besteak beste, Donostiako Kursala eta Bilboko Euskalduna jauregia bete ditu.

BECeko kontzerturako sarre-
rak eguaztenean ipini zituzten salgai. Izarok hainbat kontzertu emango du udan. Gaur bertan, Zornotzako jaietan abestuko du; beste jai batzuetan ere emango ditu kontzertuak, Uztailean Donostiako Jazzaldian ere kantatuko du, eta abuztuan Aranda de Duero Sonorama jaialdian.



Izaro.

Hainbat sari jaso duen 'Maña', Durangon

UDA GIRO 'Maña' abuztuaren 2an plazaratuko dute. Aurretik, Kantika korralaren eta Bar Santiren emanaldiak egongo dira Durangon. 'Maña' Espainiako jaialdirik entzutetsuetarikoetan saritu dute, "berritzailea eta ikusgarria" izateagaitik

A. M. DURANGO

Durango Uda Giro jaialdia azken txanpan sartuko da asteburuan. Leioako Kantika korralak emanaldia egingo du bihar, zapatua. Valentin Atxotegi durangarra zuzendari duen korua Taiwanera doa biran, eta aurretik Euskal Herrian egingo duen emanaldi bakarrenetarikoak da hau; 20:00etan izango da saioa, Andra Mariko elizpean. Bestalde, uztailaren 26an, Bar Santik LJ75 antzezlanak aurkeztuko du.

Abuztuaren 2an, Manolo Alcántara konpainiak *Maña* lana aurkeztuko du. Obrarik berritzaileenaren saria jaso zuen Valladolideko TAC jaialdian, eta Aguilar de Campoako ARCA jaialdian Susana Herreras saria jaso zuen. Epaimahaiaren berbetan, lana "ikusgarria, berritzailea eta hipnotikoa" da. Berzitasun legez, antzezlanak aurrera egin ahala eraikitzen dute instalazioa Manolo Alcántara eta Joan Trilla aktoreek.



'Maña', Manolo Alcántara cia. JORDI CALVET



Son Rompe Pera.

Elizpeak hartuko ditu Musikaireko artistak asteburuan

MUSIKAIRE Son Rompe Perak eta Hit La Rosak kontzertuak emango dituzte, eta HURyCANek dantza

A. M. ELORRIO

Son Rompe Pera talde mexikarrak kontzertua emango du gaur gauean Musikaire jaialdian. Mexikarrek marimba, cumbia eta punk doinuak nahasten dituzte, eta Europako biraren barruan bisitatuko dute Elorrio. Hit La Rosa taldea ere itsasoaren beste aldetik dator; Perutik, hain zuzen ere. Hauek ere cumbia hartzen dute ardatz, psikodelia ikutuekin. Kontzertuak elizpean izango dira, 22:30ean.

Domekan dantza garaikide emanaldiak egongo dira eta Euskal Herriko artistarik inte-

resgarrirenetariko batzuk ikusteko aukera egongo da: HURyCAN, O Globo, iXa eta Elektrokat kolektiboa. 19:00etan izango da, plazan.

Azkena, zirkua

Hurrengo asteburuan amaituko da Musikairearen aurtenko zikloa. Kinkfolk eta Sara Arzuzak jazz eta folk kontzertuak emango dituzte. Uztailaren 28an amaituko da zikloa, ikusmirarik handiena sortu duen emanaldietariko batez, Los Galindosen MDR zirkuagaz. Ikuskizun honetarako karpa berezi bat ipiniko dute Aldapebeitian.



GAI LIBREAN

AINHOA OLASO SOPELANA BEHARGINA

Zalantza habitatzea

Bolero zahar baten antza hartzen ari naitzaio berborrea mental honi. Hitzontzikeria galanta: aukera infinituen mapako hiriburuak buruz kantatzera behartuta, 4/4ko konpasean. Existentziak zalantza eternala habitatzea baino ideia hoberik izango ez balu bezala. Eta obsesionatu ororen estilora, egun batean eta bestean ere bai, lirikaren barruan kabitzen saiatzen naiz.

Bero handia egiten du eta dantzaleku honetan izerdi-patsetan gaude gehienak. Izerdi tantak bekokian, titi artean, tolesturetan... Euliek haien kantua darabilte furrundan, bzzz bzzz! Pazientziaren balioaz mintzo direla esango nuke, antsietatearen kontra, bzzz bzzz! Baina euli hegalak baino bizkorrago doaz pasioak eta beldurrak. Eta bolero zaharrek diote haien atzetik datorrela amildegia.

Zuloak eragindako bertigoaren zorabioarekin, erorketaren distantzia eta kolpearen inpaktua kalkulatzeko

"ETA BOLERO ZAHARREK DIOTE HAIEN ATZETIK DATORRELA AMILDEGIA"

"EULI HEGALAK BAINO BIZKORRAGO DOAZ PASIOAK ETA BELDURRAK"

adituak diren profesionalak azaltzen dira egun argitan, igandeetan eta etxe-agentzien aplikazioetan: bizilekua ez erosteagatik 980 Newton, enpleguz aldatzeagatik 750 Newton, familia eredu normatiboa ez jarraitzeagatik 1100 Newton...

Zaila da hemen sosegua bilatzea. Nekearen jendartean banakatzen ari gara eta basakeriarantz goaz.

Emergentziazko errekurtsioen bila, zinea eta bizitza nahasten ari diren puntu honetan, begietara begiratu diogu elkarri, eta elkarrekiko gogoa harmonian bota diogu batak besteari. Baina, aukera posibleen mapa konplikatua da, tentazioa fribolizatuta dago erabat eta erre egiten du eskuetan.

Gogo zati bat sartu zaigu zapataren eta galtzerdiaren artean eta errenka jarraitu dugu dantzan, egonkortasunaren errautsen gainean.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

UZTAILAK 19

ELORRIO Kontzertua
Son Rompe Pera.
Elizpean, 22:30etan.

DURANGO Madalenak
Tortillak aurkeztea, 19:00etan.
Txupinazoa eta pregoia, 20:00etan.
Tortilla dastatzea, 20:15ean.
Karaokea, 21:00etan. DJ Gabi
Madalena auzoan.

MAÑARIA Kontzertua
D'Capricho
Plazan, 20:00etan.

GARAI Bakarriketa
'Ztandap'.
Elizabarrin, 19:00etan.

ZALDIBAR Santa marina
Sardina jana, 20:00etan.
Bolatokia martxan, 21:00etan.
VIII. Rock jaialdia: Nekktar, Hatxe
eta Jon Uri, K-RAs&Kr8beatz,
21:00etan. Gero, Dj Lander Luque.
Goierrri auzoan.

UZTAILAK 20

DURANGO Musika
Leioa Kantika korala.
Andra Mariko elizpean, 20:00etan.

DURANGO madalenak
Argazki erakusketa, egun osoan.
Haur jolasak, 11:30etan.
Kriskitin trikitixa kalejira, 12:00etan.
Mariatxiak, 13:30etan.
Paella herrikoia, 14:00etan.
Karta eta igel txapelketak, 16:00etan.
Herri kirolak, 17:00etan.
Esbirros, 22:00etan.
Madalena auzoan.

ELORRIO Kontzertua
Hit La Rosa.
Elizpean, 22:30etan.

GARAI Santixauak
IV. Asto Trail mendi lasterketa eta
VII. mendi martxa.
Plazan, 08:00etan.

IURRETA Irteera
Debara bizikleta irteera. lurreta
Txirrindulari elkarte.
lurretatik, 08:00etan.

ZALDIBAR Santa marina
Bakailao eta paella txapelketak,
11:30ean
Mus eta briska txapelketak, 17:00etan.
Antzerkia, 18:00etan. Txokolatea.
Buruhandiak, 19:30etan.
Luhartz, 21:00etan.
Bolatokia martxan, 21:00etan.
Bolo txapelketa, 23:00etan.
Goierrri auzoan.

UZTAILAK 21

DURANGO Madalenak
Argazki erakusketa, goizean.
'Patatak eta...' txapelketa, 09:00etan
(lapikoak aurkeztea, 14:00etan).
Margolari txiki lehiaketa, 11:00etan.
Txokolatea eta madalenak, 17:00etan.
Dantza saioa, 18:30etan.
Madalena auzoan.

ELORRIO Dantza
'Te Odiero' (HURyCAN).
Plazan, 19:00etan.

GARAI Santixauak
Nagusien bazkaria Otea Loran,
14:00etan.
Bertsolariak: J. Soto, A. Martin,
I. Elortza eta A. Katarain
(Gai jartzailea: I. Altzerreka).
Elizabarrin, 19:00etan.

IURRETA Irteera
Urdulizera bizikleta irteera. lurreta
Txirrindulari elkarte.
lurretatik, 08:00etan.

ZALDIBAR Santa Marina
Ume eta gazteen bolo txapelketa,
17:00etan.
Asto probak, 18:00etan.
Herri jokoak (ume/gazteak), 18:30etan.
Donien Atxa botatzea, 19:30etan.
Argazki proiektzioa, 20:00etan.
Jaiak amaitzeko traka, 21:00etan.
Goierrri auzoan

UZTAILAK 22

DURANGO Madalenak
Jaizaleko txistulariak, 11:00etan.
Meza, 12:00etan.
Kriskitin, 12:30etan.
Luntxa, 13:00etan.
Tabira Udal Banda, 19:00etan.
Madalena auzoan.

UZTAILAK 23

BERRIZ Foklore jaialdia
Hungariako llosvai dantza taldea.
Komentuan, 18:30etan.

UZTAILAK 24

GARAI Santixauak
Donien Atxa jasotzea. Ezpatadantzarien
azken entsegua eta Lumagorriren
oilasko pintxoak, 19:00etan.
Ezten Giro, 22:30etan.
Plazan.

IURRETA Santiago
Meza, eta ondoren luntxa.
Orozketako eskola zaharrean,
12:00etan.

UZTAILAK 25

ATXONDO santixauak
Meza nagusia, 11:30etan. Ondoren,
Andasto dantza taldea.
Txopo txikiaren apainketa eta
saiheski pintxoak Gernikako
pipperrekin.
Briska txapelketa, 17:00etan.
Umeen jolasak, 17:30etan.
Santixa auzoan

ELORRIO Musika
Inun taldea.
Portalekuan, 21:00etan.

GARAI Santixauak
Kalejira txistulari, dantzari eta
agintariekin, 10:30etan.
Meza nagusia, 11:00etan.
Santiagoren irudiaren ohiko
prozesioa Elizabarriraino,
Agintariena eta Gernikako arbola
dantzatzuz. Ezpatadantzarien saioa.
Erregelen erakustaldia eta
trikitaliak, 18:30etan.
Plazan.

UZTAILAK 26

ATXONDO Santixauak
Patatak hobeto nork zuritu
txapelketa, 19:00etan. Ondoren,
tortillarik onenari sari berezia.
Tortillekin afari musikatua.
Santixa auzoan.

DURANGO Kale antzerkia
'Lanean jarraitu, 75' (Barsanti).
Otamotzena parkean, 20:00etan.

ELORRIO Kontzertua
Kinkfolk taldea.
Arespagotxaga Jauregian,
20:00etan.

GARAI Santixauak
Kalejira txistulari, dantzari eta
agintariekin, 10:30etan.
Meza nagusia, 11:00etan,
Elizabarrin. Santiagoren irudiaren
prozesioa parrokiaraino, Agintariena
eta Gernikako arbola dantzatzuz.
Ezpata dantzariak plazan. Erregelak.
Tortilla txapelketa, 18:00etan.
Itzal taldea, 21:30etan.
Plazan.

UZTAILAK 27

ATXONDO Santixauak
Paella txapelketa, eguerdian.
Igel txapelketa, 13:00etan.
Herri bazkaria. Ondoren, bingoa.
Mus txapelketa, 19:00etan.
Santixa auzoan.

ELORRIO Kontzertua
Sara Azurza.
Arespagotxaga lorategian,
20:00etan.

GARAI Santixauak
Herri kirolak, 12:30etan.
Herri bazkaria, 14:30etan.
A toda madre mariatxiak, 22:30etan.
Ondoren, DJ Kuku eta DJ Kene.
Plazan.

UZTAILAK 28

ATXONDO Santixauak
Meza nagusia, 11:30etan.
Porra txapelketa, eguerdian.
Mus eta briska txapelketak,
13:00etan.
Otzararen zozketa, 14:30etan.
Santixa auzoan.

ELORRIO Zirkua
Los Galindos.
Aldapebeitian, 22:00etan.

GARAI Santixauak
Xake txapelketa eta erakustaldia,
10:30etan.

ZINEMA

ABADIÑO (AIRE ZABALEAN)

TRAÑA PLAZAN

Space Jam. Aro berria.
domeka 21: 22:00
(Eurria bada, eskolako aterpean)

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

Padre no hay más que uno 4
barikua 19: 18:00, 20:30.
zapateria 20: 18:00, 20:30.
domeka 21: 17:00, 19:30.
astelehena 22: 18:00, 20:15
martitzena 23: 18:00, 20:15
eguztzena 24: 19:00

Twister

barikua 19: 18:00, 20:30.
zapateria 20: 18:00, 20:30.
domeka 21: 17:00, 19:30.
astelehena 22: 17:30, 20:15
martitzena 23: 17:30, 20:15
eguztzena 24: 19:00

Gru 4. Mi villano favorito

barikua 19: 18:30
zapateria 20: 18:30
domeka 21: 17:30
astelehena 22: 17:30
martitzena 23: 17:30

Del revés 2

barikua 19: 20:30
zapateria 20: 20:30
domeka 21: 19:30
astelehena 22: 19:30
martitzena 23: 19:30

Briska txapelketa, 11:30etan.
Pilota partiduak, 17:30etan.
Garain.

UZTAILAK 29

GARAI Santixauak
Umeentzako jolas parkea (11:30-
13:30/15:30-18:30)
Mus txapelketa, 17:00etan.
Plazan.

UZTAILAK 30

GARAI Santixauak
Gazteen bazkaria eta ginkana,
14:00etan.
Debrass Band, 19:00etan.
Kontzertua: The Clayton, Kaparrak
+ Katu, 23:00etan.
Plazan.

UZTAILAK 31

GARAI Santixauak
Meza nagusia, 11:00etan. Dantza
saioa eta igel jokoaren tokiko
txapelketa.
Kiki, Koko eta Moko, 18:00etan.
Asto proben erakustaldia, 18:30etan.
Herri afaria, 21:30etan.
Garain.

ZORNOTZAKO SANTANATXU ETA KARMEN JAIK

UZTAILAK 19

11:00 - 14:00/ 17:00 - 19:00
Umeentzako parkea
Gernika plaza

13:00 Gazteen kalejira
Herriatik zehar

15:00 Gazteen arteko bazkaria
eta bazkalostea
Zelaieta parkea
18:00 Sakatu elektrotzaranga
Luis Urrengoetxea

21:30 Txistularien XXIV.
kontzertua
Artista gonbidatua: Anje
Duhalde
Zelaieta parkea

23:00 Kontzertuak: Ezlandap +
Izaro
Zubiondo plaza

UZTAILAK 20

10:00 Basket 3x3
Zubiondo parkea

10:30 Marmitako lehiaketa
Zubiondo parkea

11:00 Umeentzako bolo
txapelketa
Gure kirolak bolatokian

16:00 Orkresta elektrotzaranga
Zelaieta parkea/ Euskal Herria
plaza/Harrison parkea

16:00 Karaoke ibiltaria
Zubiondo parkea/ Andra Mari plaza

16:00 Disko Festa ibiltaria
Bayo Show
San Juan kalea/ Gernika plaza

17:00 Karmenetako XVI. esku
pilota txapelketa
Eskola artekoen finalak
Federatuen finalak
Amorebieta IV frontoia

19:00 Kittu
Arraibi plaza

20:00 Kittu
Luis Urrengoetxea

21:00 Karmenetako XII. bolo
txapelketa
Gure Kirolak bolatokia

22:30 Orkestra EN ESENZIA
Zelaieta parkea

23:00 Kontzertua: Tanxugueiras
+ DJ Pary & Tiza
Zubiondo plaza

UZTAILAK 21

10:00 XLII. XAKE TXAPELKETA
Agustin Zamakona memoriale
Herriko plaza

10:00 Motorren topaketa
Gernika plaza

11:00 Ontzi modelismoaren
erakustaldia
Jauregibarra

11:00 Euskal Herriko Artzain
txakurren txapelketa
Jauregibarra parkea

12:00 Arku-tiroa
Jauregibarra

16:00 Gazteen arteko piragua
jaitsiera
Ibaizabal erreka

17:00 Bizikleta eguna

Zubiondo parkea

19:00 BATETIK BESTERA
Benetan be
Umeentzako kontzertua
Zelaieta parkea

22:00 Kontzertua: Carmina
Burana
Zornotzako Musika Banda,
Areatzako Musika Banda,
Bilboko Koralkelarte,
Abeskimu, Zornoza korala
eta Zubiaur Musika Eskolako
haurren koroa
Zubiondo plaza

UZTAILAK 22

13:00 Karropoteoa
Herriatik zehar, Harrison kalean
hasita

13:00 Txosnarien bazkaria
Zubiondo parkea

Ondoren, Larru eta
txosnalagunak

19:00 Kontzertua eta DJ
emanaldia
Zubiondo parkea

19:00 Xaibor
Arraibi plaza

UZTAILAK 23

17:00 Gazteen arteko Herri
kirolak
Zubiondo parkea

22:00 Kontzertua: Mikel
Urdangarin
Zelaieta parkea

UZTAILAK 24

11:00-14:00 / 17:00 - 19:00
Euskal Mitologia jolasak
Euskal Herria plaza

20:00 Welcome & Sorry kale
antzerkia (Ganso&Cia)
Herriko plaza

22:00 Danborrada
Ibilbidea: Txiki Otaegi, San
Pedro, San Miguel, San Juan,
Nafarroa, Ibaizabal, Gudari,
Herriko plaza

23:00 Kontzertua: Esne Beltza +
Zutik erromeria
Zubiondo plaza

00:00 Kontzertua: La Década
Prodigiosa
Zelaieta parkea

UZTAILAK 25

Goizean Baserritarren azoka
Zezilia Gallartzagotia

13:00 Udabarri dantza taldea
Zelaieta parkea

14:15 Aitite-amamen bazkaria
Amorebieta IV frontoia
Izena emateko: Nafarroa
zentroa Ateen irekiera: 13:45

16:00 Triki Piu + DJ Koldo
Amorebieta IV frontoia

11:00 - 14:00/ 17:00 - 19:00
Umeentzako parkea
Puzgarriak eta joko inklusibo
eta irisgarriak
Gure Kirolak frontoia

12:00 Open skateboard
Euskadiko Txapelketa
Zubiondo parkea

12:00 Triki Piu
Gernika Plaza / Andra Mari
Plaza/Zezilia Gallartzagotia

19:30 Gazteen arteko Play-back
lehiaketa
Zelaieta parkea

21:00 LI75 kale antzerkia euskaraz
Ogenbarrena

22:45 Su Lagunkoia Valecea
Piroteknia
Herriko plaza

23:00 Lehian erromeria
Zubiondo plaza

UZTAILAK 26

11:30 - 14:00 Txitatoki Zirkus
Umeentzako zirku azoka
ikuskizuna
Ogenbarrena

19:00 Umeen danborrada
Ibilbidea: Ibaizabal, Nafarroa,
San Juan, San Miguel, San
Pedro, Luis Urrengoetxea,
Larrabide, Karmen kalea,
Zelaieta

23:00 Mariatxi Imperial
Elegancia Mexicana
Zelaieta parkea

23:00 Kontzertua: Süne +
J Martina
Zubiondo plaza

UZTAILAK 27

MOZORRO EGUNA: SANTANAZOO

10:00 Plater-tiroa
Boroa

13:00 Gazteen kalejira
Herriatik zehar

13:00 Gaztedi fanfarrea
Zezilia Gallartzagotia - Sabino
Arana

16:00 Amorebieta - Etxanoko VI.
duatloi txikia
Zelaieta parkea parkea

16:30 Azken Froga
Arraibi plaza

18:00 Umeentzako perkusioa
Tailerra kalejirarako
Gure Kirolak

13:00 Zornotza 11 Kolore eta
Zorhontzaren agurra
Aniztasunaren kalejira
Taldea gonbidatuak : Sagarra eta
Sugarra, Gure Musikari Handiak
Gure Kirolak - Jauregizahar-
San Miguel kalea - Herriko
plaza

19:30 Parte hartzaileen
erakustaldia
ZORHONTZAREN AGURRA
Herriko plaza

20:30 El Despiste Fanfarrea
Luis Urrengoetxea

20:30 Disko ibiltaria Soun-4
Arraibi plaza/ San Juan kalea/
Gernika plaza

22:00 Adexe y Nau, Hilario,
César AC, Nía Caro, Nils Van
Zandt
Megastar FM
Zelaieta parkea

22:30 Kontzertua:
Supercremallas + Kaotiko
Zubiondo plaza

OTXANDIOKO SANTAMAÑA JAIK

UZTAILAK 19 HAURREN EGUNA

11:30 Tailerrak
Plazan

12:00 6. mailakoek eguneko txupina botako dute
Udaletxeko balkoitik

12:05 Puzgarriak eta jolasak

12:30 Arimen meza

13:00 I. Sukaldaritza Erronka

15:00 Bazkaria
Ondoren, izozkia

17:00 DJ Xaibor

17:00 Tute, mus eta briska txapelketak
Izena ematea 16:30etik aurrera
Udaletxe azpian

19:00 Ogitarteko eta freskagarriak

19:30 III. Otxandioko goxua txapelketako finala
"JOSETXU, MOTXILE eta KAITOren OMENEZ"

22:30 Kuadrillen arteko play backa

UZTAILAK 20 SAN MARTIN EGUNA

12:00 Otxandioko bandaren kalejira

12:15 Otxandioko Urbiribil Dultzainero taldearen kalejira

12:30 Meza San Martineko basilizian

14:00 Paella txapelketa, San Martinen

Mahai eta aulkien erreserba egiteko: uztailaren 19an, 08:00etatik 14:00etara
Udaletxean bertan

16:00 Gari eta lñigo trikitilariak bazkalostea girotuko dute

19:30 IXTAKLOK elektrotzaranga
Kaleetan zehar

13:00 Kontzertuak: EIRE + TOC + HOFE X 4:40 + MALAKIAS MX3
Herriko plazan

UZTAILAK 21 AGUR SANTAMAÑA

07:30 Diana eta kalejira

08:00 Sokamuturra

13:00 Omenaldia 1936an bonbardaketan hildakoei
Andikonan

13:45 Limonada
Plazan

14:00 Otxandioko eta Araiako banden kontzertua

17:15 Pilota profesionala
- Larrazabal-Elizegi vs Zubizarreta -Salaverri
- "Caixa Bank Master Txapelketa" (I. Jardunaldia)
- Estelarra: Ezkurdia-Albisu vs Laso-Tolosa
Mañondon

Ondoren, herri kirol ekitaldia
-Vulcano VI. ingude jasotze txapelketa: Jokin Eizmendi (aurreko urteetako txapelduna) eta beste 3 txapeldun
- Vulcano Ingude Jasotze I. Emakume Mailako Txapelketa
- XXIII. Urrezko Aizkolari Txapeladunen Liga
- Aizkolarien Emakume Mailako Biñakako Desafioa
- Aurtengo Biñakako Txapelketako Errebandtxa 8 enbor txanda librean

22:30 Beranduegi erromeria

00:00 Agur Santa Marina

00:30 Beranduegi erromeria

UZTAILAK 22 SOKA DANTZA

19:00 VII. Nesken Soka Dantza
Herriko plazan

ABADIÑON, GEREDIAGA AUZOAN SALBADORE JAIK 2024

ABUZTUAK 3, ZAPATUA

13:00 Donien Atxa jasotzea eta txapligu hotsez jaietako hasiera ematea. Ondoren, bertan batu garen denontzat, luntxa. Plazaratutako artean, Euskadiko kalitate bermea duten produktuen poltsa bat zozkatuko da.

19:00 Tortilla txapelketa. Sariak:
1- 50 euro, gazta eta ardo kutxa bat.
2- 40 euro eta botila bi ardo.
3- 20 euro eta botila bi ardo.

Partaide guztien artean, Euskadiko kalitate bermea. duten produktuen poltsa bat zozkatuko da.
Izena ematea, 18:00etatik aurrera. Tortillak 20:00etan aurkeztu behar dira.

22:30 BERTSO SAIOA: Amets Arzallus, Andoni Egaña, Ne-rea Ibarzabal eta Maialen Lujanbio. Gai Jartzailea: Amaia Agirre.
Bertso saioaren amaieran, hainbat libururen zozketa.
Parte hartu ahal izateko, saioaren aurretik txartela erosi behar da. (1€)

24:00 Erromeria LUHARTZ taldeagaz.

ABUZTUAK 4, DOMEKA

12:30 Hamabi Harri taldeko ezpatadantzariak.

Dantzarien ondoren, igel txapelketa. Sariak:
1- 30 euro eta txakolin kutxa bat.
2- 15 euro eta txakolin kutxa bat.
3- 10 euro.

Goizean zehar, bakailaoa pil-pilean txapelketa. Sariak:
1- 80 euro, gazta bat eta txakolin kutxa.
2- 50 euro eta txakolin kutxa.
3- 30 euro eta txakolin kutxa.

Aurkezten diren guztien artean, Euskadiko kalitate bermea duten produktuen poltsa bat zozkatuko da.

17:00 Briska txapelketa. Sariak:
1- 120 euro, garaikurrak eta botila bi xanpain.
2- 70 euro, garaikurrak eta botila bi xanpain.
3- 50 euro eta botila bi xanpain.
4- 30 euro eta botila bi xanpain.

Bikoteek 8 euro ordainduko dute parte hartzeko.

20:30 Erromeria: Ansorregi eta Larrañagagaz.

21:00 Erromeri afaria. Entsalada, bertako produktu ekologikoekin, eusko labeleko oilasko izterrak, piperrak eta postrea. Edariak eta kafea.

Afaliaren artean, Euskadiko kalitate bermea duten produktuen poltsa bat zozkatuko da.

Afalostean erromeriak jarraipena izango du gauerdira arte. Erromeria amaitzerakoan, txokolate gozoa banatuko da. Afaria 12 euro izango da eta aurrez txartela erosi behar da 626 945 623 telefonora deituta, plazak mugatuak direlako.

ABUZTUAK 6, MARTITZENA (SALBADORE EGUNA)

12:00 Meza.
Meza amaieran loreen bedeinkazioa egingo da. Mezara doazenean lore bana hartu ahal izango dute. Agertu gura duten denekin familia argazkia aterako da ermitan.

Ondoren, Salbadore egunean ohikoa denez, aureskua eta atzeskua dantzatuko dute.

Ordu bata aldera, jai batzordearen txosnan kangrejoak banatuko dira.

Goizean zehar, paella txapelketa. Sariak:
1- 75 euro eta Eusko labeleko otzara.
2- 50 euro eta txakolin kutxa.
3- 25 euro eta txakolin kutxa.

Parte hartzaileen artean, Euskadiko kalitate bermea duten produktuen poltsa bat zozkatuko da.

Goizean zehar Lander eta Jon Ander trikitilariak, plaza alaitzen.

17:00 Mus txapelketa. Sariak:
1- 150 euro, txapela eta botila bi xanpain.
2- 100 euro, garaikurra eta botila bi xanpain.
3- 50 euro eta botila bi xanpain.
4- 40 euro eta botila bi xanpain.

18:00 Umeen jolasak.

21:00 Kantu eta Dantza afaria, Andoni Ollokiegigaz. Eusko labeldun hanburgesa, postrea eta kafea. Afaria 10 euro izango da, eta txartela aurrez erosi behar da, plazak mugatuak direlako. Afaliaren artean, Euskadiko kalitate bermea duten produktuen poltsa bat zozkatuko da. Txartela erosteko, deitu 626 945 623 telefonora.

24:00 Jaietako aldeko erriaren zozketa eta jaietako amaiera emateko txokolate beroa. Gora Salbadore jaiak 2024!

ETXE LAGUNTZAILEAK: ABADIÑOKO UDALA, EREÑA erretegia, ETXETXO Inmobiliaria, SERAFIN Tailerrak, EDURNE arraindegia, EUSKO LABEL, MURUETA BASERRIA nekazal turismoa, SERRATU itxiturak eta BAQUE kafeak.

OHARRAK:
- Aurten ere jaietako aldeko erria egongo da salgai, jaietarako txosnan. Erriaren zozketa, abuztuaren 6an egingo da, jaietako amaieran. Sariak eskuratzeko epea irailaren 31n amaituko da.
- 2024ko Hamabi Harriaren kamisetak salgai egongo dira jaigunean.
- Jai batzordea ez da jaietan gerta daitezkeen ezbeharren erantzule egongo.

ANTOLATZAILEA: Gerediaga auzoko jai batzordea.



Lier Arrienek Belgikan emango du abuztua, llargues modalitateko liga jokatzen.

"Indarra beti izan da nire arma. Badut bizitasun hori"

LIER ARRIEN AZCORRA PILOTA

Lier Arrienek (Zornotza, 2002) Belgikan emango ditu abuztua eta iraila. Llargues izenagaz ezagutzen den pilota modalitatean lehiatzen arituko da hangoekin

Joseba Derteano ZORNOTZA

Valentzian egindako Europako txapelketan, belgikarrak harrituta geratu ei ziren Lien Arrien jokatzen ikustean. Tenisean antzera, pilota alde batetik bestera urrun bidali behar den modalitatean, beso bizia, nerbi-duna, arma baliotsua da, batez ere sakean. Belgikarrek egindako gonbita onartu, eta orain hango talde bategaz hango ligan jokatzen du. Orain asteburu bi Belgikan izan zen eta abuztu osoa ere han emango du.

Aspalditik zabilta llargues modalitatean jokatzen?

Lau-bost urtean nabil. Kepa Arroitauregik sarritan komentatzen zidan euskal selekzioaren entrenamenduetara joateko, eta azkenean animatu

"BELGIKAKO TALDEKO ARDURADUNA HURRERATU ETA OSO ONDO IKUSI NINDUELA ESAN ZIDAN"

egin nintzen. 17 eta 19 urtez azpiko taldeekin Herbehereetan eta Portugalen ibili ginen. Gero nagusietarako saltoa egin nuen. Talde haregaz joan nintzen Valentziara. Han geundela, Belgikako taldeko burua hurreratu egin zitzaidan. Ondo ikusi ninduela esan zidan, sakeetarako eta indarra nuela, eta Belgikara joatera gonbidatu ninduen. Saso hartan ikasketen bigarren urtean negoen oraindino eta hemen geratzea erabaki nuen, ikasketak lehenestea. Hurrengo

Europako txapelketan, Portugalen, berriro egin zidaten gonbita eta orduan baiezkoa eman nuen. Zelan moldatuko nintzen jakin gura nuen. Harrezkero, joan naizenetan elegante ikusi dut neure burua eta pozik nago.

Hainbat bider egon zara han.

Bai. Lehenengoz aste bi eman nituen han. Gero, unibertsitatean ibili naizenez, partidu garrantzitsuetara joateko egutegia adostu dut eurekin. Ahal izan dudanetan joan naiz. Orain, abuztu eta irail osoa han emango ditut. Irailean, futboleko Champions League modukoa hasiko da.

Han hemen baino ezagunagoa da llargues modalitatea?

Bai. Ligak eta maila desberdinak dituzte. Jendeak ezagutzen du modalitate hau.

Esperientzia aberasgarria izaten ari da?

Bai, oso gustura nabil. Hasieran beldur apur bat nuen. Belgikan bakarrik, hizkuntza... Baina, tira, frantseses apur bat, ingelesez beste apur bat, eta ohitzen joan naiz. Herrialde polita da, landa askokoa. Herritik herri-ira ibiltzen gara ligan, eta paisaia ederrak daude benetan.

Indarra dohain inportantea da modalitate horretan?

"INDARRA BAKARRIK EZ DA NAHIKOA: KOORDINAZIOA, NORABIDEA EGOKIA EMATEA PILOTARI..."

Sakerako bai. Bosteko taldeetan jokatzen dugu eta zelaiak 72 bat metro ditu. Sakean beste taldekoak buruz gain pasatzen badituzu, hau da, pilota 75 bat metrora bidaltzeko kapaz bazara, tanto zuzena da.

Hain luze ateratzea gatxa da?

Oso gatxa. Esan didatenez, Belgikako liga osoan hamar bat jokalarik bakarrik dute gaitasun hori.

Eta euretariko bat, zu.

Lortu dut, bai. Askotan ez oraindino, baina lortu dut. Oso gatxa da. Indarra bakarrik ez da nahikoa: koordinazioa, norabidea egokia ematea... Hainbat faktore dago. Zartako galanta eman arren, pilota kanpora badoa aurkariari tanto zuzena ematen diozu.

Indarra da zure dohainetariko bat?

Bai, indarra beti izan da nire arma nagusietakoa, esku pilotan ere bai. Eskumako besoan badut bizitasun hori.

Eskuak asko zigortzen dituen kirola da?

Sakean bakarrik. Pilotak min egiten du. Sorbalda ere kargatzen da kirol honetan. Niri neuri gehiago eragiten dit sorbalda eskuan baino.

Zelan doa esku pilotako denboraldia?

Belgikako kontua nuenez eta ez nekienez seguru noiz joan behar nuen harantza, ordezkari aritu naiz, Lagun Onak kluba estuasunean ez ipintzearen. Horrela, lasaiago aritu gara denok. Hurrengo denboraldian datak zehatzago jakingo ditut eta esku pilotan serioago arituko naiz.

Zornotzan umeak entrenatzen ibiltzen zara eta, esan didatenez, esku ona duzu eurekin.

Hori esaten didate gurasoek ere kalean ikusten nautenean; euren seme-alabak oso pozik dabiltzala, hurrengo urtean ere jarraitu gura dutela eta ea entrenatzaile lanetan jarraituko dudana. Nire gurasoek ere antzerako mezuak helarazten dizkidate; beste guraso batzuekin berbetan egon direla eta oso pozik dabiltzala nigaz. "Gauzak ondo egiten nabilen seinale", pentsatzen dut. Garrantzitsua da umeak pilotan pozik ibiltzea, eurak direlako etorkizuna. Gero, urte batzuk joanda pilota uztea erabakitzen badute, ezin daiteke ezer egin, baina hasieran behintzat har diezaiotela gustua pilotari.

Aurpegi berriekin hasi dute denboraldiaurrea

FUTBOLA Denboraldi berria martxan da Amorebieta futbol taldearentzat. Jokalari berri dezentegaz hasi dute denboraldiaurrea. Euren artean Pablo Erbias errioxarra dago, Lehen eta Bigarren Mailetan 200 partidu baino gehiago jokatu dituen jokalaria

J.D. ZORNOTZA

Amaitu dira oporrak. Astelehenetik martxan da denboraldiaurrea Amorebietarentzat. Aurpegi berri dezente izan zen Urri- txeko lehenengo entrenamenduan, eta ez aulkian bakarrik, Julen Guerrero entrenatzaile eta Jabi Luaces kirol zuzendari berriekin; baita jokalarien artean ere.

Eskuin hegala indartzeko, Pablo Hervias (Logroño, 1993) ekarri dute. Lehen eta Bigarren Mailetan 200 partidu baino gehiago jokatu ditu Real, Osasuna, Real Oviedo, Elx, Real Valladolid, Eibar eta Malaga taldeetan. 2023a Boliviako klub batean hasi zuen eta neguko merkatuan Lehen Federazioko Rayo de Majadahonda taldera joan zen.

Zelai erdirako Nassourou Ben Hamed Ndongo 22 urteko kamerundarra ekarri dute. Iaz Extremadurako Merida taldean aritu zen. Kamerungo selekzioaren



Taldea asteleheneko lehenengo eentrenamenduan. SD AMOREBIETA

beheko kategoriekin Munduko Txapelketa eta Afrika Kopa jokatu ditu. Aipatutakoez gainera, Alvaro Yuste erdilaria (Madril, 2001), Alberto Gonzalez (Aviles, 1998) eta Alex Aizpuru 'Kaxe' (Azpeitia, 1994) aurrelariak, Mi-

kel Kortazar (Ondarroa, 1999) eta Jon Ander Amelibia (Leioa, 1994) atzelariak, eta Sergio Camacho (Aranjuez, 2002) eta Alex Carbonell (Beasain, 2001) hegalekoak ere batu dira Amorebietara orain arte.



Korrikalariak Asto Trail probako une batean.

300 korrikalarik parte hartuko dute Garaiko Asto Trailen

MENDI LASTERKETA Lehenengoz antolatu duten proba laburrak harrera ona izan du, 120 bat parte hartzaileguz

J.D. GARAI

Zapatu honetan Asto Trailen laugarren aldia egingo dute Garain. Hiru hitzorduak kontuan hartuta —lasterketa luzea, laburra eta mendi martxa—, 300 parte hartzaile batuko dira.

Hiru probak udaletxe ondotik irtengo dira. Martxa 08:30ean hasiko da, lasterketa luzea 09:30ean, eta lasterketa laburra 10:00etan.

Garai Traitloio Taldekoek aurtent antolatu dute, lehenengoz, proba laburra, eta pozik daude izan duen harreragaz. 120 bat parte hartzaile izango ditu. Pro-

ba laburrak eta martxak ibilbide bera izango dute, eta, besteak beste, Askako eta Jandolamendi mendiak igoko dituzte. 28 kilometroko proba luzean Oizko gailurreria osoa egingo dute, iaz hasitako bideari jarraituta.

Gaur, barikua, parte hartzaileek dortsala jasotzeko aukera dute Garain, 16:00etatik 20:00etara. Ahal dela gaur joateko eskatu dute antolatzaileek, lasterketa egunean lasaiago eta denboraz ibiltzeko. Ahal den neurrian kotxeak bide ertzean eta txukun aparkatzeko ere eskatu dute.



JOKALDIA

GABRIEL BARRANCO DEVESA LARRASOLETA XAKE TALDEKO XAKELARIA

Xakea eta zahartzarora

30 urtetik aurrera, garuna hondatzen hasten da. Kasu batzuetan, alzheimerra, parkinsona edo beste dementzia mota batzuk gara daitezke, estresa, ohitura ez osasungarriak eta lan errutinak direla eta, besteak beste. Beraz, beharrezkoa da garuna etengabe lantzea; eta helduaroan, xakean aritzeak emozioa eta memoria osatzen duten eremu espezifikoak estimulatu laguntzen du, kontzentrazioa eta estres falta nabarmen gutxituz. Ikerketa zientifiko ugari egin dira xakeak garunaren zahartzea atzeratzen duela eta alzheimerra saihestu dezakeela frogatzen dutenak. Izan ere, dementziak kontsulta arrazoi ohikoenak dira neurologia osasun eremuan, eta, aldi berean, dementzia agertzeko modurik arruntena alzheimerra da, funtzio kognitiboaren hondatzea baitu ezaugarri. Xakean jokatzeko dugunean, garunaren ezkerreko hemisferioa piezak ezagutzeko erabiltzen dugu, eta eskuineko hemisferioarekin jokaldiak aztertzen edo antzematen ditugu.

Neurozientzialari askok xakea gomendatzen dute arazo degeneratiboen aurka egiteko eta zahartze osasuntsu bat izateko. Azaltzen dutenez, bizi-itxaropenak gora egin du eta, ondorioz, biztanleria zahartu egin da. Aldi berean, adinarekin lotutako gaixotasun neurodegeneratiboen gora egin dute. Jarduera mental handiagoaren eta zahartzaroko dementzia-arrisku txikiagoaren artean korrelazioa dagoela diote; beraz, xakeak patologia neuronalen aurka babes efektua sortzen du erresistencia kognitiboa handituz (neurona konexioak areagotuta).

Xakean aritzean ezaugarri hauek garatzen ditugu: kontzentrazioa, memoria, arrazoibide logikoa, pentsamendu zientifikoa, erantzukizun pertsonala, motibazioa (zenbat eta gehiago jakin, orduan eta gehiago jakin nahi duzu), egiten duzunaren ondorioei buruzko hausnarketa, sormena, pazientzia, diziplina, arriskuen kalkulua, ikuspegi globalerako gaitasuna (Nik nahi

XAKEAK PATOLOGIA NEURONALAREN AURKA BABES EFEKTUA SORTZEN DU

dudan lekura iristeko hainbat jokaldi egin behar baidituz, egin behar dituz, kalkulu espaziala (aurreikusitako nola egongo den xake-taula hurrengoko jokaldietan, interesatzen zaizun jakiteko). Gainera, alderdi sozialean, bakardadea eta depresioa borrokatzen ditu.

Laburbilduz, adinari kasurik egin gabe, xakean jokatzera animatzen zaituztet. Larrasoleta Xake Taldean, haurrentzako ikastaroez gain, adinekoentzako ikastaroez antolatzen dira; informazioa nahi izanez gero, idatzi ajedrez.durango@gmail.com posta elektronikora.

GUARDIAKO BOTIKAK

UZTAILAK 19

24 orduz

Navarro, Artekalea 6 - Durango

Melero, San Pedro 31 - Zornotza

22:00 arte

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

UZTAILAK 20

24 orduz

Irigoiñ, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-13:30

Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango

Bazan, Urribarri 5 - Durango

Sarria, Sasikoa 17 - Durango

De Diego, Intxaurren 22. - Durango

Santamaria, Errekakale 6. - Elorrio

Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

Melero, San Pedro 31 - Zornotza

UZTAILAK 21

24 orduz

Bazan, Urribarri 5 - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

UZTAILAK 22

24 orduz

De Diego, Intxaurren 22. - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

UZTAILAK 23

24 orduz

Sagastizabal, Askatasun etorb. 19 - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

UZTAILAK 24

24 orduz

Navarro, Artekalea 6 - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

UZTAILAK 25

24 orduz

Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

ZORION AGURRAK



GOZATU GOZOTEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663 / 661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
f Gozatu Gozotegia
i gozaturgozotegia



ABADIÑO

Alluitz Azkarraga Azkorbebeitia

Zorionak, Alluitz! Hilaren 22an 11 urte! Urteotan zenbat bizipen eta abentura eder higaz batera familian! Segidu egik orain arteko moduen, umil, zoli, bizkor eta alegere! Hi haz hi tipue!



IURRETA

Maier Iza Areitio

Uztailaren 21ean, 15 urte egingo dozuzen egunean, zoragarri pasau deizule! Maite zaitugun danon partez mosu pillo bat.

DURANGO

Narao eta Koldo

Ekainak 29. Zorionak, bikote. Ezkontzan bezain ondo pasa daizuela eztei bidaietan. Asko gozatu eta GORA EZKONBERRIAK!

Urte askotarako!

Hamabostean behin, jasotako zorion-agurren artean **GOZATU gozotegiko tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrekin batera.

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta *Anboto.org/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

Posta elektronikoa


Mezua bidali *zorionagurrak@anboto.org* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaituz Anbotoren ordezkartzara edo deitu 946 232 523 telefonora.


EGURALDIAREN IRAGARPENA

EUSKAL HERRIA




DEBAGOIENA

Zapatua, 20



Domeka, 21



GAER DESINFEKZIOAK



Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

Betikoak flexografia

BULEGORAKO ZIGILUAK FOTOLITOAK

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA



INMOBILIARIAK

ETXETXO
INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



C.E.E: E 198.000 €

ABADIÑO 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Ganbara eta garajea. Hegoaldea. Ikuspegiak mendietara. Bizitzen sartzeko moduan.



C.E.E= E 150.000 €

DURANGO Atikoa. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Guztiz berriztatua. Bizitzen sartzeko moduan.



C.E.E: F 170.000 €

LURRETA 70 m². 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Berogailua. Igogailua. Hegoaldea.



C.E.E: E 285.000 €

MURUETA TORRE 110 m². 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela terrazarekin. Ganbara eta garajea.



C.E.E: D 359.000 €

ERROTARITXUENA 95 m². 3 logela, 2 komun, sukalde jantzia eta egongela. Terraza. Garajea eta trastelekua.

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ETXEBIZITZAK SALGAI
DURANGO

Askatasun etorbidea: 2 logela, 2 komun eta sukalde-egongela. Terraza handia. Garajea eta ganbara.

Pinondo: Logela biko atiko ederra. Sukaldea eta komuna. 50 m²-ko lokalarekin batera salgai.

Barrenkalea: Logela bateko apartamentua. Sukaldea, egongela, eta komuna. Trastelekua.

Tabira: 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Oso argitsua.

BERRIZ

Berriz: 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta tra stelekua.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO

Atxondo: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

LURSAILAK SALGAI

Tabira: 1.445 m²-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Laua.

Iurreta: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

Abadiño: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatuko. Lursailarekin. Ganbara.

Berriz: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatuko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

Berriz: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatuko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

Atxondo: Axpe. Baserri ederra salgai. Berriztatuko. Kokapen izugarria

Mañaria: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

Mendata: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatuko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

BULEGOAK ALOKAIUAN

ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

GARAJE ITXIAK SALGAI

Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.


LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatoko lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

Matiena: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com




C.E.E: E. 209.000 €

DURANGO Madalenoste: 80 m². Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Balkoia. Berriztatua. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialdea- ipar-hegoaldea). Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzугuneak. ITE-a pasatutakoa.



C.E.E: E. 219.500 €

DURANGO Tabira: 79 m². Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Balkoia. Berriztatua. Etxe osoak kanpora ematen du (mendebaldea). Leku onean kokatua. Zonalde berdeak. Herriko sarrera/irteeratik gertu. Garajea.



C.E.E=BIDEAN 229.000 €

DURANGO Alluiz: 68,18 m². Halla, egongela, sukalde jantzia, 2 logela eta 2 komun. Balkoia. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du (hegoaldea). Leku onean kokatua. Zonalde berdeak, zerbitzугuneak eta herriko sarrera/irteeratik gertu. Ganbara. Garaje itxia +26.000 €.



C.E.E: BIDEAN. 290.000 €

DURANGO Martxoaren 8ko: 92 m². Sukalde-egongela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ezin hobea. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebaldea-hegoaldea). Zonalde lasaia. Zonalde berdeak eta herriko sarrera/irteeratik gertu. Ganbara eta garajea.



C.E.E: BIDEAN. 319.000 €

DURANGO Oñiturri: (1.997.urtean eraikia). 78 m². Halla, egongela, sukaldea, eskegitokia, 2 logela eta komuna. Balkoia. Ezin hobea. Etxe erdiak kanpora ematen du. Argitsua. Ikuspegiak (hegoaldea). Zonalde berdeak eta zerbitzугuneak. Egoera onean. Ganbara eta garajea.

Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

DURANGO

Antso Estegiz: 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Trastelekua. Igogailua. **175.000 € / E.E.Z=F**

Askatasun Etorbidea: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 320.000 € ORAIN 298.000 € / E.E.Z=E**

Askatasun Etorbidea: 3 logela, sukaldea eskegitokiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000 / ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

Barrenkalea: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Berriztatuko. **LEHEN 150.000 € / ORAIN 138.000 € / E.E.Z=G**

Barrenkalea: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

Errotarituena: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea. Trastelekua. Igogailua. **359.000 € / E.E.Z=D**

Juan de Olazarán: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

Komentu kalea: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. Ganbara. **187.000 € / E.E.Z=E**

Komentu kalea: 2 logela, sukalde-egongela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara. Igogailua eta garajea. **379.000 € / E.E.Z=B**

Santikurutz Kalea: Etxebizitza bifamiliarra eraikitako 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 550.000 € / ORAIN 495.000 €**

ABADIÑO

Konpontzeko eraikina. Behe solairua eta 3 pisuko altuera. **215.000 €**

BERRIZ

Murgoitio auzoa: Berreraikitako baserria lurzorugaz. **LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €**

GARAI

Momoitio auzoa: Etxebizitza eraikitako lursailak. Aukera ezberdinak.

IZURTZA

Elizalde auzoa: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **LEHEN 620.000 € ORAIN 570.000 € / E.E.Z=E**

OTXANDIO

Elixoste: 3 logela, sujalea balkoiarekin, egongela eta komuna. Ganbara. Igogailua. **145.000 € / E.E.Z=F**

Zelaieta auzoa: Baserria. 40.355 m²-ko lursaila. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. **LEHEN 348.000 /ORAIN 280.000 E.E.Z=G**

GARAJEAK SALGAI /ALOKATZEKO

Durango eta lurretan aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuarekin.

LOKALAK SALGAI / ALOKAGAI

Informazio gehiago bulegoan.

PISUAK ALOKATZEKO

Informazio gehiago bulegoan.



LAU-HORTZA

KAROLINA SUAREZ
KAZETARIA

Oda txikia erromeriei

Herri kultura ez da estatikoa, bizi-bizia baizik. Bizia eta berria; nahiz eta sustrai luzeak izan, auskalo norainokoak. Ogibideak erromeriaz erromeria narama azken asteotan eta sentsazioa daukat historian bete-betean kokatzen zaituen zerbait dela; jasotzen dugun guztia emana zaigula.

Baliteke berri hitza desegokia izatea tradizioaz hitz egiteko, horretarako zahar egon behar duelako, eta tradizioa ez da zaharra, antzinakoa baizik. Bada, aspaldiko horri ahal den moduan eusteko izerdia dariela ikusi ditut hainbat herrikide handik eta hemendik: euskara apenas entzuten den Lazarragaren herrian era prekarioan hurrei auresku arraro bat erakusten; Arene auzoko lagunak turistifikazio makabroaren gainetik Dragonstone San Juan Portaletaña abesten; Urallagara zaldian igotzea baino besterik ez duten meatzarien oinordekoen azal gogorra edota Aizkorri inguruetako artzainena, urrutiko erromeriara bidean...

Hor, bada mundu bat zeinari denbora luzean kasu handirik ez zaion egin. Erromerietan mundu guztia unean oso presente dago, dibertitzen eta inguruan duena ospatzen: auzolana, paisaia, adiskidetasuna eta askatasuna. Aberria egin nahi ez eta egin egiten dute tokiko erritualen sutsuek. Oda txikia izan dadila hau zoriontsuago egiten gaituen horri.

AKUILUA



"Disfrutatzea ere bada erredimenduaren parte"

MIKEL ARROITAONANDIA MANSILLA KORRIKALARIA

Mendian korrika eginda grabaturiko bideoak sareratzen hasi zen Mikel Arroitaonandia urte hasieran, eta denbora gutxian 5.000 jarraitzailetik gora batu ditu

Aitziber Basauri DURANGO

Mikel Arroitaonandia (Zaldibar, 1993) mendian korrika egitea du afizio orain bost urtetik hona, eta orain Euskal Herriko tontorrek ezagutzeko gonbita egiten du sare sozialen bitartez (@mikelarroita). Psikologia ikasketak amaituko ditu laster. **Zelan hasi zinen mendian egindako ibilbideak sareratzen?**

Korrikalariak, errendimendua bilatzen duten kirolariak, sare sozialetan kirolaren alde polita

erakusten zutela ikusten nuen. Baina, lasterketa bat prestatzerakoan, edozein kirolean, badaude momentu txarrak ere, eta kirolaren beste alde hori ere erakusteko helburuagaz hasi nintzen edukiak sareratzen. Izan ere, bizitzan eta kirolean normala da gorabeherak izatea. Gainera, Euskal Herriko hainbat tontor eta txoko polit erakusteko modua ikusi nuen. Horrela hasi nintzen. Jendeak gustuko izan ditu edukiak; batez ere,

mendi tontorren bideoak. Euskal Herriko tontor eta inguru berriak ezagutzera animatu gura dut jendea.

Errendimenduagaz loturiko beste-lako edukiak ere sareratzen dituzu. Bai. Gainera, uste dut errendimendua oso lotuta dagoela buruagaz. Errendimendua lortzeko beti gogor egin behar dela uste dugu askotan, sakrifizio bat eskatzen duela. Baina disfrutatzea ere bada errendimenduaren parte. Etekin ateratzeko dis-

frutatu egin behar da. Momentu txarrak biziko ditugun arren, pozik jardun behar dugu. Batzuetan entrenatzera joaten naiz, eta beste batzuetan leku berriak ezagutzera. Oreka topatzen ahalgintzen naiz.

Itxaroten zenuen izan duzun harre-ra sareetan?

Ez. Nire helburua inoiz ere ez da izan jarraitzaileak lortzea. Mendian bideoak egitea gustuko dut, eta jendeak gustuko baditu, oso ondo. Bidali gura dudan mezua heltzen bada, ba hobeto. **Zuretzat mendia terapia dela diozu.** Bai. Egungo gizartea oso bizkor doa, eta mendiak aukera ematen dit egunerokoak deskontektatu eta naturagaz konektatzeko.

Zenbat tontor geratzen zaizkizu? Mordoa! Bizkaian bakarrik asko dago (barrez).

Hainbat lasterketatan parte hartu duzu, Euskal Herrian eta Espainian. Baduzu bat bereziki gogoan?

Hiru Haundiak lasterketak erakarritu hasi nintzen korrika, eta oraindik ez dut proba hori egin. Ea egiten dudana. Egunen batean, Greziako Spartathloia egitea ere amesten dut.

Korrika egiteko edo oinez ibiltzeko leku bat?

Urkiolako Parke Naturala eta Anbotoko mendilerroa izugarriak dira, asko disfrutatzen dut. Irailean, Sorginen Lasterketa eta Mañaritik Atxetara lasterketetan parte hartuko dut, lehenengoz.

"EGUNEN BATEAN GREZIAKO SPARTATHLON LASTERKETA EGITEA AMESTEN DUT"



Smurfit Kappa
Central forestal

+55 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAITZEN

Smurfit Kappa
Nervión